

t tipi t tapa


459



**Patziku Perurenaren
lan berria kalean**

03

Goizuetan sortu eta aspalditik Leitzan bizi den idazleak *Dakiguna ikasten* eleberria kaleratu du berriki. Liburua globalizazioari lotuta dagoela azaldu digu.



**Xabier Ibargarai palis-
ta Nafarroako irabazle**

56

Oberena taldearekin ari den erratzuarrak Nafarroako buruz buruko txapela jantzi du, lehen aldiz larruzko pilotarekin. Heldu den urtean profesioletan ariko da.

2007ko azaroaren 29a • XXVII. urtea
www.ttipi.net

PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOARENTZAT

04 Europako Bide Berdeen lehen saria



BERTSO saioa



Fredi
PAIA



Sebastian
LIZASO



J.J. Zubieta
ETXABE



Miren
ARTETXE



Gai jartzailea
Manolo AROZENA

Abenduaren 2an
Arratsaldeko 7:00etan
BERAko Kultur Etxean
Sarrera: 5 (han bertan salgai)

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



MADERAS ARRAETXE

ZERRATEGIA ETA ZUREN INPORTAZIOA

- Bereztasunak: oholak, tabloiak, gaztain, haritz, gerezi, lizar eta egur tropikalezko piezak, etab.
- Tarimak (haritza, gaztaina, pinua, etab.)
- Teilatu eta teilatu-hegalentzako izei eta haritzazko egur trinko eta laminaztatuak

Tfnoa: 948 604 757 • Faxa: 948 604 758
Industrialdea, 13 • LEKUNBERRI • arraetxe@teleline.es

DATUAK...

- **Aspaldidanik Leitzan bizi den Patziku Perurena goizuetarrak saiakera berria kaleratu du: *Dakiguna ikasten* (Alberdania).**
- **Poesiari buruz idazten hasi zen eta duela 22 urte argitaratu zuen lehen poema bilduma. Baina ez da genero bakar batera mugatu eta geroztik liburu saila egin ditu.**
- **Azken lana globalizazioarekin lotuta dagoela azaldu digu, «kanpotik datorkigun bonbardaketaren aurrean, bakoitzak barruan daukaguna zeinen baliagarria den ohartzeko».**

Patziku PERURENA *Idazlea*

ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

«Lan bat kaleratzea zaila da, argitaletxeek ez baitute busti nahi»

Joseba URKIOLA

Orain hiru urte, *Harrizko pareta erdi urraturik* eta aurrean harrizko parretak urratu eta *Dakiguna ikasten*. Zer ikus daiteke lan honetan?

Harria ikaragarri gustatzen zait, denboran eta espazioan, sinbologiarik handienetakoa eduki dezakeena baita. Hortaz harriari hainbesteko erreferentzia, bai azalean, baita aurretik argitaratutako lanean ere. Mamia, aspaldidanik ezer argitaratu gabe nengoela aprobetxatuz, gai askoz osatutako zakuak da. Liburua osotasunean ugaria da. Orain irakurleak esan beharko du. **Nolatan izenburu hori?**

Mila zentzu izan dezaken arren, egiaz, egun bizi dugun globalizazioaren fenomenoarekin lotua dago. Badirudi norbanakoak egun bizi guztia kanpoko gaiak ikasten eta barneratzen igarotzen duela. Baina aldi berean, ahaztu egiten gara bakoitzak barruan daukagun hazi edo nortasun hori nondik datorren. Hori da adierazi nahi dudana, kanpotik datorkigun nolabaiteko bonbardaketa geldiezinaren aurrean, bakoitzak barnean daukagun hori zein merkea eta baliagarria den ohartzeko.

«Garratzasuna agian gehiago egonen da liburuan, baina orokorrean eguneroko gaien inguruan mintzatzen naiz: maitasuna, sexua, natura...»

Txillardegik lan batean, «Egunkari hau, neure kezken kutxa izango da» aipatu zuen...

Ni ere zeozer idazten hasten naizean, kezka bat tarteko hasi ohi naiz. Askok esaten didate oso kritikoa naizela, baina mundu guztiak bizi duena eta nik neronek arruntasunez bizi dudana zerbaiten inguruan idaztea, alferrikako lana iruditzen zait. Gure bizitza, J.M. Irigoienek esango lukeen moduan, poliedrikoa dela deritzot, hau da, ehun alde desberdinetatik ikus daitekeena. Ni gutxien ikus daitekeen perspektiba azaltzen edo horren inguruan idazten ahalegintzen naiz.

«*Fruitu tipiak eskuragarri dauzkan zuhaitz eder bat*» bailitzen aurkezten da liburua. Dastatzen hastean, gozotik ala gazitik du gehiago? Egungo gizartean dagoen baino go-

zotasun gehiago eta zentzu poetiko batean txertatutako garratzasuna dago liburuan. Garratzasuna agian gehiago egonen da, baina orokorrean, eguneroko gaien inguruan mintzatzen naiz: maitasuna, sexua, natura, filologia, oinazea, zorientasuna...

Zure hausnarketez gain, filosofoen, pentsalarien... hitzak daude.

Nire lagun onenak liburuak izan dira. Gauza tristea da, liburua berez gauza hotza eta materiala baita, baina liburu batean hainbeste maitasun, poetikotasun, berotasun edo bihotzeko istorio oso gutxitan harrapatu dut. Pasarte asko beste autoreenak diren arren, pertsonalak dira eta gordinean neure baitatik atereak. Beste askorenak garai bateko adabakiekin konparatuko nituzke, petatxu lana egiten baitute. Denak, hori bai, nire gustuko literariotasun eta poetikotasunarekin hornituak.

Hurrengoan pentsatzen hasi zara?

Bi ume dauzkat, eta nahi edo ez, bizimodua asko aldatzen dute, baina materiala metatzen ari naiz. Dena den, egun lan bat argitaratzea nahiko zaila da. Argitaletxeek ez dute inolaz ere busti nahi.



PLAZAOLAKO PARTZUERGO TURISTIKOAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Plazaolako Bide Berdearen zati bat, Leizatik pasatzen den bidean.

BIDE BERDEEN GARAPEN ETA TURISMOAREN ARLOAN

Plazaolako Bide Berdeak lehen saria lortu du Europako lehiaketa batean

Europako Bide Berdeen III. Sariaketa. Halaxe du izena Plazaolako Bide Berdeak lehendabiziko saria lortu duen lehiaketak. Plazaolako Partzuergo Turistikoak garapenaren eta turismoaren alorrean lortu du saria, bide berdea berreskuratzeko azken urteetan egin duen lana saritzeko eta bide batez, partzuergoaren kudeaketa sistema ona baloratzeko, udal erakundeak eta enpresa pribatuen elkarteak elkarlanean ari baitira. Sari banaketa azaroaren 7an egin zen Madrilen, Bide Berdeen Turismoa eta Osasunari buruzko jardunaldi teknikoaren barrenean. Europako herrialde ezberdinetako hainbat hautagaiaren artean aukeratua izan zen Plazaolako. Zehazki, Plazaolako Bide Berdearekin batera, Espainia, Frantzia, Italia, Belgika, Erresuma Batua, Irlanda, Austria eta Txekiar Errepublikako bertze 26 kandidatek lehiatu ziren, alde batetik, garapen eta turismoaren saria lortzeko eta bertzetik, mugikortasunarena. Plazaolako ordezkariak gustura daude lortutako sariarekin, eta ate berriak irekiko dituelakoan. Horrela azaldu digu behintzat Jose Maria Aierdi presidentek.

Gurutze PIKABEA

Plazaolako Partzuergo Turistikoa 1994an sortu zen irabazi asmorik gabeko elkarte da, sei udalek eta arlo pribatuko 130 ordezkari osatzen dute: Areso, Basaburua, Larraun, Lekunberri, Leizta eta Iza-Gulinako Udalek eta, bertzeak bertze, ostalaritza, landetxe, artisautza eta bertze elkartetako arduradunek. Era bateko eta bertze hainbat ekimen eta jarduerara garatu ditu, guztiak ere helburu argiarekin: zonaldeko turismo-garapena planifikatu, kudeatu eta bultzatzea; Eta guztiaren abiapuntu Plazaolako Natur Bidea. Bide zidorrek berreskuratu, Mendukiloko kobazuloak, Basaburuako haritzak, Albiasuko begiratokia, Larraun ibaiaren sorlekua, erakusketak, azokak, Plazaolako pasaporte... Urteen joanean baliabide andana garatu dute. Eta horien artean dago bide berdea berreskuratzeko

Jose M^a AIERDI *Plazaolako Partzuergo Turistikoko presidentea*



Zer suposatzen du Europa mailako sari honek?

Oso garrantzitsua da halako saria irabaztea, are gehiago, alor horretan gu baino historia gehiago duten Ingalaterra, Belgika eta Frantzia bezalako herrialdeek parte hartzen duten lehiaketa dela kontuan hartuta. Antzian trenaren bidea aitzakiazat hartuta zonaldeko kultura erakutsi izana ere saritu dute, baita Partzuergoaren kudeaketa eredia ere, entitate publikoak eta pribatuak elkarlanean ari direlako. Sariak indatsuago sentiarazteko balio izan digu, eta gainerako trenbide zatia berreskuratzeko gogoberritu gaitu.

84 kilometroko bidea berreskuratzea da helburua; dagoeneko 19 eginak...

Uitziko tunela, Mugiro-Irurtzun eta Irurtzun-Iruña zatiak gelditzen dira. Uitziko tunelarekin Lekunberri-Andoainerako zatia elkartuko da. Baina argi dugu, Plazaolako bidea interes turistiko haundiko baliabidea bilakatzeko, ibilbide haundi bat antolatu beharko dugula. Nafarroak badu horretarako aukera, eta lehiakortasun haundiko bide berdea garatu daiteke. Iruña Donostiarekin elkartuko duen bide horretaz gain, Baztan-Bidasoa aldera, Lizarra eta Irati aldera ere ailegatzen bagara, —Nafa-

rraoko Gobernuak eta udal-lek borondate politikoa baldin badute—, produktu interesgarri eta lehiakorra eskaintzeko moduan izanenginateke, estatuko eta Europako leku askotan zaila izanen litzatekeen zerbait.

Iruña-Donostia zati guztia bukatua ikusteko datarik aurreikusituz duzue?

Uitziko tunela bi urte barru egina egonen dela uste dut, eta Irurtzundik Iruñerako zatia ere bizpahiru urtera irekia egotea espero dugu.

Etorkizunera begira baduzue bertze egitasmorik?

Bide Berdea da proiekturik nagusiena, baina ez bakarra. Azken urteotan beste proiektuak ere landu ditugu, eta une honetan ere baditugu esku artean. Oso garrantzitsua da turismoa erakarriko duten baliabideak lantzea.

«Nafarroak badu lehiakortasun handiko bide berdea garatzeko aukera»

proiektua ere, garai batean Plazaolako trenak Iruña eta Donostia lotzeko egiten zuen 84 kilometroko bidea berreskuratze egitasmoa, alegia. Eginahal horretan ari dira azken urteotan, eta dagoeneko 19 kilometro atondu dituzte Mugiro (Nafarroa) eta Andoain (Gipuzkoa) artean: 2000. urtean Mugiro-Lekunberri-Uitzi bide zatian lehen zazpi kilometroak inauguratu ziren; 2001ean Uitziko tuneletik Gipuzkoako mugarako bertze 12 kilometro egokitu ziren.

Moldatutako lehenbiziko bi zati horiek lortzeko, ordea, Uitziko tunela berreskuratu beharko da, 2,7 kilometrokoa. Hala, behin hau egindakoan trenbidearen Nafarroa aldeko 22 kilometro berreskuratutako geldituko ziratekeen. Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugatik Andoain bitarteko 22 kilometroko zatia, berriz, egokitua dago, nahiz eta hau ez den natur bidea. Gainerakoari dagokionean, Plazaolako Partzuergo Turistikoa azterketak egiten segitzen du Iruñera ailegatzeko gelditzen den zatia berreskuratzeko: Mugiro-Irurtzun eta Irurtzun-Iruña zatiak, hain zuzen. Aipatzekoa da, bertzalde, bidea Nafarroako bertze inguruetara hedatzeko asmoa ez dutela bazterzen Partzuergoan, hartara, Nafarroako turismoa erakartzeko baliabide eman korra eskaini dezan.

PLAZAOLAKO TRENAREN HISTORIA



Plazaolak trenbide estua eta lurrunezko trakzioa izan zuen. Hastapenean, meatzerako-trena izan zen. Plazaolako meatzeetatik Andoainera burdina garraiatzeko erabili zen. Denborak aitzinera egin ahala, hasieran meatzaritzan soilik erabiltzen zen trena merkataritzarako bihurtu zen gero. 1914ko urtarrilean, ordea, Donostiatik txangozale talde batekin etorri zen trena; eta ordutik aitzinera, Donostia eta Iruña lotzen zituen bidaiari-trena izan zen. 40 urtetan hala iraun zuen; merkataritzarako eta komunikaziorako bide izan zen, eta, aldi berean, kulturaren elkartrukerako aukera ere eman zuen. Baina hasierako garai ederrak 50. ha-

markadan bukatu ziren: 1953 urteko uholdeak eta autobusen konpetentzia tarteko, bertan behera gelditu zen tren zerbitzua 1958an. Hamar urte beranduago, trenbidearen lursailak enkantean jarri eta jabetza pribatuaren esku geratu ziren. 1989an Lekunberriko Udalaren ekimenez, Plazaolaren ibilbidea natur bide gisa berreskuratzeko lehen pausoak ematen hasi ziren; 1994an Partzuergo Turistikoa eratu zen eta 2000. urtean trenbideko lehen zazpi kilometroak egokitu ziren. Gaur egun Donostia eta Iruña lotzen dituen 84 kilometroko trenbidea berreskuratzeko lanean jarraitzen du Plazaola Partzuergo Turistikoa.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemakalariak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitzua, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdi Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzua	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Berako Aralarri erantzuna

Aralarrek prentsan agertutako idatzia dela eta, Berako Eusko Abertzale Ekintza ANVko taldekoek desadostasunik zuzenean solastuz moldatzen direla uste du. Hala ere, zenbait kontu argitze aldera, molde berean erantzuteko beharra sumatu dugu.

Lehenik, gu ez gara inolaz ere gordeka ibili. Hilero ogasun batzordean biltzen gara EAE-ANVren alkatea eta gainerako taldeetako partaide bana, eta bertan Herriko Etxeko diru mugimendu guztiak aztertzen dira eta beraz, garbi dago aholkularitza honen gastuak ere bertan ikusiko ditugula.

Herriko Etxera ailegatu berri den alkate batek aholkua eskatzea ez da deus ere txarra, kon-

trakoa, herriari ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko borondatea erakusten du. Are gehiago Herriko Etxean hainbat gai korapilatsu ikusita gure taldeak beharrezkoa ikusi du alkateak bere kontsultak egiteko aholkulari bat izatea, nahiz eta idazkaria, hirigintza aholkularia eta auzitegitako defentsarako abokatua bertan izan. Gure ustez hauei etengabe kontsultak egiteak Udaleko martxa moteldu egiten luke eta herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko helburuarekin hartu dugu erabaki hau. Urte baterako kontratua sinatu dugu eta bukatzean egingo ditugu behar diren balorazioak. Alka-

teari dagokion eskubidea erabili bertzerik ez dugu egin.

Harrigarria iruditu zaigu Aralarrek kritika hau egitea, ikusirik berak alkatezta duen beste herri batzuetan erabaki berdina hartu duela.

Alkatearen soldataren harira, soilik aipatu, lehengo alkateordeak 23.452 euro jasotzen zituela jardunaldi partzialan lan eginez eta oraingoak 35.108 euro jardunaldi osoan eta erabateko dedikazioarekin. Bertzalde, alkatearen soldata Udalbatzarrak ahobatez onartu zuen, hau da, zinegotzi guztiek aldeko botoarekin.

Aralarrek eskubide osoa dauka Udalaren funtzionamenduari eta

alkatezaren jardunari nahi dituen kritikak egiteko, baina aldi berean espero dugu Aralarren jardura komunikabideei begira egindako lanean ez oinarritzea. Herriko Etxean zer aldatu badago eta horretan bide lagun izateko gonbita luzatzen diogu.

Josu Irazoki
Berako EAE-ANV

Guda

Bertze behin, aspaldiko urtetan bezala, urria hurbiltzarekin batera, ta aurten gutti azaldu den haizeguak lagunduta, hasi zen nabaitzen era-soaren usaia.

Polborinetan, gure

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

Donezteben eta inguruko herrietan

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

32. kanalean ikusten da orain

Antena partikularra dutenek telebista bersintonizatu beharko dute eta, pazientzia pixka batekin, telebista aparatua bilatuko ditu etxeko antenatik hartzen diren frekuentziak.

Antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, nahitaezkoa izanen da anplifikadore berria jartzea. Horretarako, antena instalatzaileari deitu beharko zaio.

Argibide gehiago behar izanez gero, deitu 948 63 54 58 telefonora.



• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •

DIARIO VASCO, 2007-11-16

gudariak prestatzen ikusten ni ttun armak ta muni-ziuk erosten. Ni halere, ez nitzen sartu, ezpainaiz borroketan parte hartze-ko bezain ausarta,.... Zorionez, ni egon gabe ere, emakume bat edo bertze ta gizaseme ausart andana dago guri babeste-ko. Odol hotz-berodunak, grina ta indarrez beteta-ko gorputzadunak.

Ta hasi zen borroka. Uso itxuraz mozorroturik, iparraldetik eraso ta sartzan hasi zen, nahiz eta ez ziren espero bezain haibertze lagun izan.

Halere, urriko hilautin azkeneko egunetan, ta azaruko lemizkutan, aurrez-aurreko bortitzak izan ziren, heriotz danbak han eta hemen, mendi magal ta gailurretan, ikustezinak diren gure gudariak, gure ingurua defenditzen.

Niri mingarria suertatzen zait tiro hots horiek aditzia, gelditu gabe, han ta hemen, 2, 4, 7, hamar!

Bat bertzean atzetik! Ez nuke entzun nahi, urduritasuna ta oihu itteko gogua sortzen baizait, biño biharrezkoa baldin bada, hala bedi, guzian onerako.

Halere, aurten ere garaile ateri gara, aunitzek (bihar bada gehienek) ihes in dute, batzuk kostaldetik juan direla diote, balitteke, biño gu, bertze urte baterako lasai gaude. Ta honezkero jakinen dute erasotzaile hoiak, garaia alletzen denin, berriz ere han izanen direla gure gudariak euren arme-kin, erasoari aurre itteko prest.

Joanes Sakonegi

Beti Abel bihotzean

Merezi dutenak iristen omen dira finalera eta azken bolada honetan fina-

lez final dabil gure pilotaria baina, ez du suertea bere alde izan aurrekoe-tan. Hala ere, frontoia zurekin egoten da Abel, bertan egoten garen askori zuk erakutsi baitiguzu pilotaz gozatzea zer den. Erakustaldi bikainak egiten ari zara, aurrean jartzen zaizun edozein «*obs-takulu*» atzean utziz. Pilotari bikaina eta horreri zure umiltasuna gehitzen badiogu zu bezelako bat sortzen delako gaude guztiok zurekin. Zure jokatze-ko moduagatik eta zure izaeragatik zara hain maitatua ezagutzen zaituzten toki guztietan beraz, gaurkoan nik idazten dizudan arren, ematea dagoen suertea guztia opa dizugun guztien izenean idazten dizut. Animo eta aurrekoan esan nuen moduan, jarraitu lanean txapela zurea da eta!!!

Maitane Gereño

«*Kotxeetan nahi eta ahal den adina gastatu daiteke, 3.000 eurotik hasi eta hortik goiti. Nire kasuan dena nik ordaintzen dut, hagitz zaila da babesleak lortzea... Jendeak ez du dirua emanen bertzeak ongi pasa dezan. Enpresa bat duen afizionatu bat aurkitzeko suertea behar da... Baina diru aunitz da: kotxea eta hau mantentzea, arropa, lizentziak, erremolkea, seguruak, probetan izen ematea... Hobe ez badut segitzen! Afizio haundia behar da horretarako.*»

KOTETO
Lesakako auto gidaria
D. Vasco 2007-11-16

«*Batez ere, Partzuergoaren kudeaketa sistema baloratu dute —tokiko entitateek eta enpresa elkarte pribatuek parte hartzen dutelako— eta bide berdea zonaldeko ardatz hartuta egin den eskaintza turistikoa.*» «*Uitziko tunela konpondu, eta Mugiro-Irurtzun eta Iturtzun-Iruña zatiak berreskuratzean, hiru proiektu horiekin Plazaolako Bide Berdea estatuko osatuenetarikoa izatera pasatuko litzateke, eta Europa mailan indar haundikoa izatera.*».

Jose M^e AIERDI
Plazaolako presidentea
D. Noticias 2007-11-13

caroha
gestiolegia okinologia
C/ de Artagoia 25 btejo - 48940 Bera (Navarra) - t.948 63 08 99 - www.caroha.net

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

Haur jaiaberrientzako osteopatia tratamenduak

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

LEGARRA
ESKOLAKO MATERIALA
PRENTSA

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 · Albistur, 9 · LESAKA

ZJ
Zalain
jateetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

KULTURA

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa jokatu zen azaroaren 17an Lekunberrin

Elizondoko Elisa Perotxenak ahots xarmantaren saria jaso zuen

ttipi-ttapa

Nafarroako Kantu Txapelketaren finala jokatu zen joan den azaroaren 17an Lekunberrin 31 aretoan. Giro ederra sortu zuten kantariak aurtengo edizio honi behar bezalako akabaila emateko.

Sariei dagokionez, sormenezko kanten lehen saria Aurizberriko Ainara Villanueva eta Edurne Errearentzat izan zen eta bigarren saria Tuterako Saioa Crespoarentzat. Era zaharrean kantatu zuten artean, lehen saria Iruñeko Izkon bikotearentzat izan zen eta bigarrena Elizondoko Elisa Perotxena eta Iñaki Gendiarentzat. Era modernoan kantatu zuten artean, lehen postua Lekunberriko taldeak etxe-

ratu zuen, eta bigarren saria Aurizberriko Miren eta Edurne Erreak.

Bertze sari bereziak ere izan ziren: ahots xarmantaren saria Elizondoko Elisa Txoperenarentzat izan zen; *A capella* egindako lanaren saria Orbaizetako Ahotsak taldearentzat; sormen lan ederrenarena Saioa Crespoarentzat eta bikote lanari emandako saria Leitzako Maddi Olano eta Birjina Mariezkurenarentzat.

Honela, 2008ko ekainean Bilboko Arriaga Antzokian izanen den Euskal Herriko Kantu txapelketa nagusirako Nafarroako ordezkariak erabaki ziren: bakarlari bezala Saioa Crespo joanen da, bikoteka Izkon bikotea eta taldeka Lekunberriko taldea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xurdin haurrentzako antzerki musikala Leitzan

Xurdin eta gorringo lakuaren misterioa, horrela du izena Xurdin taldearen azken lanak. 2 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua dago eta euskara jatorrean antzeztzen dute. Euskal Herrian barna, txoko desberdinetan eginen dituzten geldialdien artean bat Leitzan eginen dute. Larunbat honetan izanen da Leitzako zinean, 16:30ean. Argazkian Josemari Gorostegi *Tomson* ikuskizunaren sortzailea ageri da. «*Xurdirin abentura berri honetan, Alaitasunaren basoa arriskuan egonen da berriro, oraingoan Marilur sorgin maltzuraren laguntzarekin...*».

ederne
Centro de Estético

- Aurpegi eta gorputz tratamendua
- Estetika dekoratiboa
- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Ile kentze mota guztiak
- Solariuma
- Ariketa eta terapia

**EGUBERRIETAN
EDERTASUNA OPARITU**

Berrotaran, 7 behea • 20302 IRUN
Tfnoa: 943 63 24 84

ederne
Centro de Estético

Berrotaran, 7 behea
20302 IRUN
Tfnoa: 943 63 24 84

ESKAINZA BEREZIAK

Alquidepil

Lightsheer diodo laserrarekin behin betiko ile kentzea
ESKAINZA BEREZIA
abenduarren 31 bitartean
%20ko deskotua

eta aldi berean
2 tratamendu ezberdin egiteagatik
%30eko deskotua

depilación permanente
con láser de diodo lightsheer

USOA
nekazari kooperatiba

ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETZALAR

ttipi
ttapa

www.ttipi.net
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

BERA

Aholkularitza kontratatuz herriari ahalik eta zerbitzurik onena eman nahi diola dio ANVk

Hala erantzun dio Aralarrek egindako kritikari

Amaia eta Ainhoa

Aralarrek Josu Iraizoki alkatea aholkulari personala kontratatzea kritikatu zuten prentsan agertutako idatzia dela eta, Berako EAE-ANVk prentsa ohar baten bidez erantzun du. ANVren ustez, desadostasunak zuzenean hitz eginez moldatzen dira, baina zenbait kontu argitze aldera molde berean erantzuteko beharra sumatu dute.

Lehenik, inoiz ez dirrela gordeka ibili argitu nahi izan du ANVk: «*Hilero ogasun batzordean biltzen gara EAE-ANVren alkatea eta gainerako taldeetako partaide bana, eta bertan Herriko Etxeko diru mugimendu guztiak azterzen dira*». Herriko Etxera ailegatu berri den alkate batek aholkua eskatzea ez da deus ere txarra ANVren ustez, kontrakoa baizik, «*herriari ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko borondatea erakusten du*». Are gehiago, hainbat gai korapilatsu ikusita beharrezkoa ikusi dute alkateak kontsultak egiteko aholkularia izatea.

Urte baterako kontratua sinatu da aholkulariarekin eta bukatzean eginen dituzte balorazioak. Alkateari dagokion eskubidea erabili bertzerik ez dutela egin azpimarratu du ANVk. Alkatearen soldatari dagokionez Udaltzazak aho batez onartu zuela oroitarazi du, eta zera gaineratu: «*Lehenengo alkateordeak 23.452 euro jasotzen zituen jardunaldi partzialan lan eginez eta oraingoak 35.108 euro jardunaldi osoan eta erabateko dedikazioarekin*». Idatzia akautzeko, Udaletxean «*bide lagun izateko gonbita*» luzatu die ANVk Aralarri.

Alkaiagako asfalto fabrikaren kontra

Agerrako bizilagun talde batek Alkaiagan egin nahi duten asfalto fabrikaren kontrako jarrerara aurkeztu du, fabrika hori beraien etxetatik hurbil egoteagatik. Bizilagun talde honek gainerako bizilagunak eta Berako Udalak deus egin gabe ez gelditzea eskatu dute. Dirudienez, aurreko Uda-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Lagun Haundiak Berako Jubilatuen elkartearen egoitza inauguratu dute

Duela urte pare bat, Berako talde batek erretiratuen elkarte bat sortzeko asmoa agertu zuen. Lehenengo urteko azaroan lehen bilera egin zuten eta 100 lagun inguru bildu ziren. Hala, estatutuak egin, dirulaguntzak eskatu eta azkenean egoitza lortu dute. Bolondresak moldaketa lanak egin zituzten, eta lehenengo astean, azaroak 23, inauguratu zuten Lagun Haundiak Elkarteak Legia karrikan izanen zuen egoitza. Luis Aizpuru apaizak egoitza bedekatu zuen eta ondotik hameketako ederra egin zuten. Gaur egun 228 bazkide ditu elkarteak eta momentuz 10 euro jarri dituzte materiala ordaintzeko. Aurrerantzean 12 euroko kuota ordaindu beharko dute. Egoitzan sartzeko bazkide izatea derrigorrezkoa izanen da. Lehendakaria Mertxe Retegi da, lehendakariordea Mari Carmen Castelos, idazkaria Espe Ustaritz, diruzaina Maria Jesus Diaz eta bokalak Karmen Mitxelorena, M^a Victoria Erro eta Josefina Iglesias.

lak ez zuen erabaki hau alegatu. Bizilagunek las-ter gai honen inguruan hitz egiteko batzarra eginen omen dute.

Gaztetxoan ateraldia Ibadinera

Nafarroako Kirol Jolasen barnean, mendi ateraldi ezberdinak antolatatu dira. Azaroaren 18an Berako Beramendi taldeak antolatuta, 300 gaztetxok Berabardin-Bera ibilbidea

egin zuten, tartean Sunbilla eta Berakoek. Goizean abiatu eta eguerdirako itzuli ziren Berako frontoira. Bertan bazkaldu eta ondoren joko ezberdinez gain, mendigoerari buruzko DVD bat ikusteko aukera izan zuten. Urrian, Sorogain eta Auritz arteko ibilbidea egin zuten gaztetxoek eta hilaren 18koa aurtengo azkena izan zen. Dena den, datorren urtean ere ateraldi gehiago eginen dituzte:

urtarrilaren 20an San Adrianera joanen dira; otsailaren 24an Bardeetara; apirilaren 20an Urbasara eta maiatzaren 10ean orientazio proba eginen dute. Eskualdean Berako Larun Mendi Taldea eta Sunbilla-ko Ulibeltzak Elkarteak daude sartuta ekimen hauetan baina edozein herriako neska-mutilek parte har dezakete. Horretarako 675829420 edo 687351489ra deitu behar da.

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
948 625 472
BERA NAFARROA

ERREKALDE
PLATER KONKURTAK
PINTXAK
ONGI PASA BESTAKI
Ongi pasa bestaki
948 630 259 BERA

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Bera
Altaia, 5 - Tel: 948 630 083

LESAKA

Epaitegietako bidea hartzearen arrazoiak azaldu zituzten Patronatuak eta ikastolak

Lurren salerosketa kontratua legalki deuseztatzeko aukera bakarra dela diote

Aitor AROTZENA

Cornelia Lecuona Fundazioko lurren salerosketa kontratuen inguruan azken asteetako adierazpen uholdearen ondorioz, azaroaren 15ean jendaurrean informazioa eman zuten Cornelia Lecuona Fundazioa kudeatzen duen Patronatuak eta Tantiurumairu ikastolak Kasinon.

Jakina denez, Fundazioko Patronatua herriko alkateak, herriko apezak eta apez laguntzaileak edo koadjuto-reak osatzen dute eta hiruak, Koldo Erkizia, Ander Gillegi eta Juan Aiastui, alegia, jendaurrera agertu ziren. Beraien batera, Tantiurumairu ikastolako ordezkariak izan ziren agerpenen.

Ander Gillegi apezak garbi utzi nahi izan zuen agerraldia ez zela ekintza politikoa eta, Cornelia Lecuona Fundazioaren historia eta erakunde honen helburuen berri eman zuen.

Ondotik, Lupe Muxika, ikastolako irakasleak «*irtenbide bakarra kontratuak legalki deuseztatzea*» dela aipatu zuen. Azken bi urteetan gai honen inguruan Patronatuak eta ikastolak



ARGAZKIA: AITOR A.

Hotzari aurre egin zioten herriko neska-mutikoek azaroaren 18ko Haurren Egunean

Azaroaren 18an, Lesakako Irain eskolako Guraso Elkarteak eta Tantiurumairu ikastolako Otxogorriena Guraso Elkarteak antolatutako Haurren Eguna ospatu zen. Goiz hotzean hainbat eskulan egin eta jokuetan parte hartzeko aukera izan zuten neska-mutikoek. Arratsaldean, berendua eta Iñigo Etxeparek paratutako musika aditu eta dantzatu zuten.

izandako bileren eta hartutako erabakien berri eman zuen.

«36 ETXEBIZITZA AGERI DIRA KONTRATUAN, MUSIKA ESKOLARIK EZ»

Koldo Erkizia alkateak hartu zuen hitza segidan. Berak kargu hartu zuenean, bi salerosketa kontraturen berri izan omen zuen. «*Batek Kristo-Enea futbol zelaiko lurrak eta ondoko baratza hartzen zuen eta 36 etxebizitza aurreikusten ziren, 18 ba-*

bes ofizialekoak eta 18 libreak. Bertze kontratuak ikastola ondoko baratza hartzen zuen, eta bi adosatu aurrakusten ziren». Alkateak azpimarratu nahi izan zuen, «*inon ere ez zela Musika Eskolarik edo haurtzaindegirik agertzen, Juan Fermin Mitxelenak aipatu duen bezala, etxebizitzak, lokal komertzialak eta garajeak baizik. Bi kontratu hauen truke, 90.000 eta 18.000 euroko fidantza ere eman zuen konstrukto-*

reak, txeke bidez». Kontratua beteko ez balitz Fundazioak fidantzaren utzitakoaren bikoitza ordaindu beharko lioke eraikitzaileari.

Orain arte gertatutakoaren berri eman ondotik, hemendik aitzinera Patronatuak eta ikastolak eman beharreko urratsak azaldu zituen Lupe Muxikak. Irakasleak jakinarazitakoaren arabera, «*kontratuak nuloak dira hiru arrazoiengatik: batetik, lurrak ezin direlako sal-*

du, bertzetik, Juan Fermin Mitxelenak Fundazioaren boteretik gabe sinatu zituelako eta azkenik, 1990ean sinatutako hitzarmen baten bidez, lurrak ikastolari utziak zaizkiolako 25 urterako, hau da, 2015. urtera arte. Halere, kontratuak nuloak izan arren, legalki deuseztatzen ez diren bitartean, indarrean daude».

BIDE JUDIZIALA

HARTZEA ERABAKI DUTE PATRONATUAK ETA IKASTOLAK

Horregatik, konstruktoreak arazoa onez onean moldatzeko borondatek erakutsi ez duenez, bide judiziala hartzea erabaki zuen Patronatuak irailaren 17an eta Tantiurumairu ikastolak urriaren 11n egindako ez ohiko batzarrean. Kontratuen baliogabetasun legala galdegiten dute ikastolak eta Patronatuak, baita epaiketaren kostua Juan Fermin Mitxelenak eta Garayarkonstruktoreak ordaintzea ere.

Bide judiziala segituz, lehenik, adiskidetzake-ekitaldia eginen litzateke, baina hau aitzinera aterako ez balitz, ohiko epaiketa egin beharko litzateke.



ETXALAR

FLASH

120 usazaletik goiti bilduko dira larunbat honetan usazaleen bestan

Azkeneko urtetako uso-sasoirik onena izan da aurtengoa

Joseba eta Nerea

Iparraldeko zortzi usategietako langileak eta Etxalartik 12 bat inguru. Guztira 120 laguetik goiti bilduko dira larunbat honetan, herriko plazan, uso-denboraldiaren akabera ospatzeko. Aurten gainera, aitzakia badute, azkeneko 5-6 urteetako denboraldirik onena izan delakoz. Iaz 36 dozana bakarrik hartu zituzten. Aurten laukoiztu egin dute kopurua: 141 dozana harrapatu dituzte, 1.694 uso denetara. Inoiz baino kontentua go daude usazaleak. «Haizea gure alde izan dugu. Iparraldea egun aunitzetan etorri zaigu eta usoek bide naturala hartu dute, kostatik pasatu beharrean, mendi ingurura hurbildu dira» erran digu Patxiku Irisarri usazaleak. Aspaldiko partez, aspertzeko asti haundirik ez dute izan bi hilabete hauetan, eta irri ederrekin akabatu dute denboraldia.



ARTXIBOA

Usazaleei ez zaie kontent egoteko arrazoirik falta izan aurtengo denboraldian.

BISITA ETA BAZKARIA

Aspaldiko ohitura da denboraldi bukaeran bederatzitako usategiak (iparraldean zortzi eta gurearekin bederatzitako) bazkari baten bueltan elkartzea. Urtero herri desberdinean egiten da besta eta aurten Etxalartik tokatu zaio. Goizean Ihar mendiko gainera joanen dira denak, bertakoak eta gonbidatuak, bisita gidatu batean Usategiak ikusteko.

Eguerdi partean, herri-rajautsi eta bazkari ederrenaren bueltan bilduko dira. Arratsaldean trikitixa izanen da. Seguraski, berandurarte luzatuko da besta gehienentzat.

SARIAK ONENARI ETA TXARRENARI

Bazkalondotik, *raringbat* egingen da 9 usategien artean, bakoitzak harrapatu dituen usokopuruaren arabera.

Gehien lortu dituen usategiari txapelak emanen zaio, eta guttien harrapatu duenari ere bai. Etxalarkoak goiko postuetan egonen dira aurten, 141 dozenako marka ez baita edonolakoa.

Frontoiko teilatua berritua

Duela bi aste akabatu zituzten frontoiko obra-lanak. Aspaldiko beharrei erantzunez, teilatu berria eman diote.

Mus txapelketa Herriko

Arrakasta handiz egiten da ortziralero mus txapelketa Herriko Ostatuan. Aitzineko urtetako martxa ikusita, joan den urri akaberan hasi zen aurtengo txapelketa. Ortziralero produktusortak ederra ematen zaio bikote irabazleari eta horren aitzakian, 12 bat bikote elkartzen dira astero. Ekainera arte luzatuko da txapelketa. Edozeinentzako irerria dago eta hitzordua arratseko 11etan da.

Euskara Mankomunitatearen Gogoeta Eguna

Azaroaren 17an Euskara Mankomunitateak antolatutako Gogoeta Eguna egin zen Kultur Etxean. Bortzirietako 20 bat euskaltzale bildu ziren eskualdean euskara sustatzeko zer egin behar den hausnartzera. Zigor Etxeburua Kontseiluko kidea aritu zen koordinatzaile lanetan eta puntu franko eztabaidatu ondoren, ondorioak atera eta euskararen normalizazio-prozesurako pausak zehaztu zituzten. Aitzineko bi asteetan, Lesakan eta Beran izan ziren hitzaldiak. Etxalarkoak bukaera eman zion jardunaldi sortari.

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA

Kontaketa ordeztagia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordue eskatu

ONDORIGETATIK INDARTZENDO:
Diabetes - Azina - Zizareak - Larri azaleko elergia - Buruko mina
Oinen izerdia - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERKURATZEA:
Miopia - Bista ofertua - Estrabismoa - Begi lusuak-kataraktak

GIHARRE ARAZOAK:
Bixkartzea - Artritis - Erreuma - Artrisia - Lunbelgia - Bihardurak - etab

Telefona: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN

udana
salazones

LINE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest

Alkaga Ind. - Barreta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

ARANTZA

Asier Apezetxea goiko postuetan dabil Lizarrako Txirrindulari Elkartearen Openean

Ixabel Lukanbio herriko eraikinak garbitzeko langilea izanen da aurrerantzean

Nerea ALTZURI

Azaroa ere bere azken egunetan da. Urteari ere hilabete bat gelditzen zaio agurtzeko. Aldiro aldiro, berriak jasotzen eta idazten ditugun ataltxo honetan, Asier Apezetxea txirrindulariaren ibileraren errepaso egiten dugu. Uda bukaeran bere aurreikuspenen berri eman genuen. Dakizuen moduan, Euskadiko txapelduna izan zen txapelketa ona eginez. Orain Lizarrako Txirrindulariaren Elkarteko Opea korritzen ari da (Diario de Navarra Opea delakoa). Dagoeneko joan den igandeko probarekin sei egin ditu, eta Lizarran abenduaren 9an hondarreko proba egingen du. Joan den igandearte egindako saioetan bigarren eta hirugarren postuak lortuz joan da, eta sailkapen orokorrean bigarren tokian dago 93 punturekin. Urriaren 21ean abiatu zen mendi bizikleta arloko Nafarroako open



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Hasi dira ardiei mingain urdinaren gaitzaren kontrako txertoak ematen

Nafarroako bertze herrietan bezala, Arantzán ere hasiak dira mingain urdinaren eritasunaren kontrako txertoak paratzen. Herrian Julio Salinas ari da horretan, eta iragarri bezala, hasieran ardiei bakarrik emanen zaie. Joan den astean hasi ziren, eta aste honetan segituko dute. Behie, berri, beranduago emanen zaie.

entzutetsu hau Argedasen; urriaren 28an Oteizan izan zen bigarrena; azaroaren 4an Muniain de la Solanan; azaroaren 11n Deikaztelun; azaroaren 18an Lukin; eta joan den igandean Zurukuainen. Guztira 30 kilometro inguruko probak dira eta or-

du eta erdi inguruko iraupena dute, goian daudenek azkarrago egin arren. Asierrek fisikoki ongi dabilela adierazi digu, kontent dago bere buruarekin, nahiz eta lehenengo posturik ez lortu. Jabi Moso Lizarrako prestatzaile fisikoarekin ari da entrenatzen, eta

Conor Saltokiko txirrindulari gazteak ahaleginak egingen ditu abenduaren 9an abudoago egiteko. Zorte on Asier!

Garbitzaile berria

Urte mordska egin ditu Arruneko bordako Rosario Agestak herri-

ko eraikinen garbiketan. Gainera aitzineko udal informazioan bere lan ona eskertua izan zen. Berak baja hartu ostean, herriko langile bategarbitu ditu eraikinak. Joan den hilabetean Udalak herriko lau eraikinen garbiketarako lehiaketa publikoa zabaldu zuen. Azaroaren erdialdera epea akaututa, hemendik aitzinera hilabete eta urte berriarekin batera Exkerrenkobordako Ixabel Lukanbiok garbiketa ardua hartuko du. Udaletxea, medikuaren kontsulta, ludoteka eta eskola garbituko ditu.

Kontzertua Aterpen

Musika talde aunitzek bisitatu dute Arantzako Aterpeko Taberna. Oraingoan talde sortu berri baten eta bere burua Euskal Herri osan aurkeztzen ari dena izanen da abenduaren 7an. Gobernors taldeak emanaldia eskainiko du 22:30etik aitzinera.

TOAILAK
Toailak-Manteleriak-Oheko maindireak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzen ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzen ditugu.
Ezkerri Plz. Berrio 4ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

BOBKO
BIBIEN KANTALANDEAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfno: 948 637 626

XIRRI
Alzate 1 - BERA
Tfno: 948 631 408

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Ituzia
LABORATORIO & SERVICIOS
HIDROREINTZA
HIDROSEMBRA
FERROUS SALTICORENA
LARRALDEA
948 637 514
948 637 194

IGANTZI

Ekitaldiz beteriko kultur egunak egingen dira abenduaren 6tik 8era bitartean

Abenduaren 7an *Bota patsa!* antzerki emanaldia izanen da Baratzondon 21:00etan

ttipi-ttapa

Urtero bezala Igantziko Euskara Batzordeak kultur egunak antolatu ditu abenduaren 6tik 8era bitartean. Abenduaren 6ko ekitaldi guztiak haurrei zuzenduak izanen dira. Hasteko, 11:00etatik aitzinera eta bi orduz, tailerrak izanen dituzte, Kulki taldearekin frontoian. Talde hau lehen ere Igantzian izana da, eta herri kiroltan oinarritutako tailerrak lantzen ditu, haurrentzat aski gustukoak izaten direnak. Arratsaldean bi film eskaniko zaizkie, biak ere Baratzondon. Lehen, 4:00etan, txikieneztat, Haur Hezkuntzako entzatat, izanen da. Ondotik, 5:15ean Lehen Hezkuntzako entzatat bertze bat izanen da. Eta gero



UTZITAKO ARGAZKIA

Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore ezagunak izanen dira *Bota patsa!* antzerkiaren protagonistak

denentzako berendua izanen da.

Abenduaren 7an helduentzako txanda izanen da. Gaueko 9:00etan, Baratzondon, *Bota patsa!* antzerki emanaldia izanen da.

Txalo Konpainiaren lana da eta telebistako bi aktore ezagunek parte hartzen dute. Biak gimnasio batean elkartuko dira, eta haien arteko elkarrizketaren bitartez ongi pasatzeko kome-

dia arin bat eskainiko dute.

Abenduaren 8an, tradizio bihurtu denez, erakusketa eguna izanen da. Igantziko Biltokiren eskutik, *Igantziarrak eta kirolagaiarekin* erakus-

keta izanen da Baratzondon, 11:30etik aitzinera. Gai horrekin berekin egin zen 2003ko erakusketa, baina, elkarteko arduradunen ustez, geroztik ere herri-tarrak kirol jarduera aintzetan aritu dira, eta berri-egitea erabaki dute.

Erakusketarekin batera abiatuko da patata-tortila lehiaketa, 11:30ean frontoian. Nahi duen guztiak parte hartzen ahal du, eta arratsaldean, 7:00etatik aitzinera, horiek dastatzeko aukera izanen da Biltokian egingen den berenduan.

Eta kultur egunei akabera emateko, Biltokian, 19:30ean *64 P Errepi-dea* taldearen jazz emanaldia izanen da, Udazkeneko Bira deituriko zikloaren barrenean.

bortzirudi
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KAMUSETAK - BIDERAK - TIKETEROAK (Nahi duzun neurri - ibilgaitzak)
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORISTAK, TITULU BISTETZAN - PLANOAK
ENKILADENAZKOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PIPERTEGIA - BULIGO MATERIALA
DISEÑU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - FOTOTRUKIA - IMPRENTA

Eztegara, 26. Eukaleko Bidea D - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

BEINTZAKO OSTATUA
☎ 948 45 00 14

Orbelak

IRU BIDE
Errologia - Asakor

Bizar (USA) 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

ERROTAZAR
harategia

Bertako produktua

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

bentamiguel
denda, jatebrea eta ostatua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

Albisuhortz klinika
Odontologia Medikua - Kol. Zkia 448

Ordua eskatzeko deitu:
☎ 948 631 631
Iparraldea 3 - 2.ezk. 31780 Bera

SUNBILLA

Eguberrietarako prestakuntzak hasiak dira dagoeneko

Olentzerorekin ateratzeko aurretik entsaioak eginen dira

Jaione OTXANDORENA

Eguberriak iristeko gutxi falta dela eta, dagoeneko prestakuntza lanetan hasiak dira herrian. Antzakaitz kultur taldeak antolatuta, abenduaren 24an Olentzerorekin ibilaldia eginen da, baina aitzinetik entsaioak eginen dira. Ale hau idazterakoan ez genekien noiz izanen diren entsaioak, beraz, eskolako haurren eta herrian jarritako oharren bidez emango da horien berri.

GAZTEEN ESKEA

Bertzalde, abenduaren 25ean, gazteak eskean aterako dira. 17:00ak aldera hasiko dute herriko itzulia eta gauean baserriz baserri ibiliko dira goizalderarte. Halere, alde z



ARGAZKIA: AMAIA ARRETXEA

Joan den urteko bazkarian sari batzuk banatu zituen Alfredok.

rretik izena eman beharko dute Itturburu osatuan, abenduaren 10etik 20ra.

GAZTEEN BAZKARIA

Azken urteetan herrian gazteek *Alfredon bazkaria* deritzona egi-

ten dute. Aurten abenduaren 22an izanen da eta berrikuntza bezala, bazkaria joaten duten guztiek mexikarrez mozorrotuak joan beharko dute. Mozorro onenak saria jasoko du gainera. Aldi berean, aipatu,

Alfredo Arretxea sukaldariak ETBko *Horrelakoa da bizitza* saioan kolaboratzaile lanak egingen dituela sukaldaritza-ko aholkuak emanez. Hamabostero azaltzen da, astearte edo asteazkenetan, 19:45 aldera.

BEINTZA-LABAIEN

Kanposantu berriko lanak lizitazio fasean daude

ttipi-ttapa

Beintza-Labaienen kanposantu berria egiteko obren lizitazio epea zabaldu du Udalak. Egin beharreko lanek 160.626,20 euroko gastua izan beharko dute gehienez — zergak kontuan hartu gabe —, eta interesatutako enpresek abenduaren 14a bitarte izanen dute euren proposamenak aurkezteko epea. Beintza-Labaiengo udaletxean aurkeztu beharko dute, astelehen, asteazken eta ortziraletan 09:00etatik 12:00etara. Obrak egiteko epea, berriz, sei hilabetekoa izanen da.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

ITUREN

Kultur Egunak antolatu ditu Ibiltza Kultur Taldeak ortziraletik igandera

Igandean Iturengo argazkiak ikusteko aukera izanen da

Ainara MINDEGIA

Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, aurten ere Kultur Egunak antolatu ditu Ibiltza Kultur Taldeak. Ortziral honean, azaroak 30, hasi eta igandera arte luzatuko dira. Ortziraletan, 20:00-etan talo jatea egingen da Herriko Etxeko Ganbaran eta ondotik kantaldia izanen da Jaione Olazabalekin. Larunbat goizean haurrak izanen dira protagonistak. 11:00etan haur jokoak eta tailerra izanen dira, eta 13:30ean haurren bazkaria Herriko Etxeko Ganbaran. 16:00etan 16 urtetik gorakoentzako mus txapelketa hasiko da. 16:30ean Patxin-Potxin pailazoek ikuskizuna eskainiko dute plazan eta egunari segida ona emateko bertso afaria egingen da Herriko Ostatuan Irazu eta Amuriza bertsolariekin. Ondotik, dantzaldia Sebastianekin.

Igandea izanen da azken eguna. Arratsaldean Jagoba Manterolaren eskutik Iturengo argazkiak ikusteko aukera izanen da Herriko Etxeko Ganbaran eta ondotik tortilla patata eta postre lehiaketa (etxean egin behar dira).

EGUBERRIETAKO ZOZKETARAKO TXARTELAK SALGAI

Bertze urte batez Ibiltza Kultur Taldeak Eguberrietako zozketarako txartelak salgai paratu ditu. Zozketa 2008ko urtarrilaren 5ean egingen da eta hau izanen dira sariak: lehenbizikoa zare eder bat; bigarrena bizikleta eta hirugarrena bilagunendako afaria Altxunea Erretegian. Sariak herriko denda, ostatu eta ileapaindegiekin osatuak dira. Zerbaki sariak Ttipi-Ttapa, Xaloa eta Xorroxinen jakinaraziko dira.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Ander Erasunen garaipen berria

Donezteben jokatuako Euskal Herriko aizkolari gazteen txapelketan herritarra izan dugu berriz ere txapeladun. Aizkolari gazteek bi kanaerdiko eta lau 45 ontzako moztu behar izan zituzten, lehia estua izan zuten eta ikuskizun polita eskaini zuten. Zorionak berriz ere Ander!



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

San Martin bestak ezin hobeki

Giro ederrean igaro dira aurtengo San Martin bestak. Adin guztietako jendearentzako ekitaldiak izan dira eta denetan ere ikusle eta parte-hartze nabarmena izan da. Haur jokuak, aizkora apostua, trikitixa jaialdia, dantzak... Hala ere, eskerrik haundienak herriko gazteei, ostatua eta elkartea martxan jartzeagatik eta bestak antolatzeagatik.

ttipi
ttapa

www.ttipi.net
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Ttapa: 948 630 735 - 407 406 781

Maderas
GOMEN

Tel: 948 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA

- Era guztietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

DONEZTEBE

Ukrainiako haurrei laguntzeko kanpaina abiatu du eskolako Guraso Elkartek

Arropak, jostailuak eta bertze produktuak biltzeko epea hilaren 30ean akituko da

ttipi-ttapa

San Migel Eskolako Guraso Elkartearen ekimenez, Ukrainiako haurrei laguntzeko kanpaina garatzen ari dira eskolan, *Malerreka Laguntzen* izenarekin. Azaroaren 20an paratu zuten martxan proiektua eta hilaren akabera arte hori lantzen ariko dira. Arropak, jostailuak, oinetakoak eta higiegi produktuak ari dira biltzen, baina antolatzaileek janaririk ez emateko adierazi dute.

Bilketa ortziral honekin bukatuko da, eta bitartean, helburua 1.000 kiloetara ailegatzea izanen da. Horretarako haur bakoitzak hiru kilo eramatea nahi dute. Bilketa amaitzean, Guraso Elkartek sailkapena egingen du kutxetan eta abenduaren 19an kamioia bidaliko dute.

Horrez gain, Nafarroako Aurrezki Kutxaren bidez laguntzeko aukera ere zabaldu dute. kherson izenarekin egi-



San Migel Eskolako ikasleak Ukrainiako haurren egunerokoa nolakoa den ezagutzeko aukera izan dute.

tasmoaren aldeko laguntza edozeinek ematen ahalko du.

Kanpaina Guraso Elkartek proposatu zuen, eta eskolak proiektuarekin bat egin eta Ukrainiako haurren egoera hurbilagotik ezagutzen aritu dira ikasleak. Informazio gehiago 948 456144 telefonoan edo helbide honetan: *erre-kagurasoak@terra.es*.

Osasun kontseilariaren bisita

Maria Kutz Nafarroako Gobernu Osasun kontseilariak Doneztebeko Osasun Etxea bisitatu zuen joan den azaroaren 20an. Izan ere, orain del a zenbait hila-bete udal ordezkariak Nafarroako Gobernuarekin elkartu ziren Osasun Etxearen egoera-

ARGAZKIAK: GOIZALDE URDANPILLETA

ren berri emateko. Doneztebeko zinegotziek Bortzirriak eta Baztango osasun zentroek hobekuntzak egin dituztela diote eta ez dela gauza bera gertatu Doneztebearekin. Hala, X izpidun makina jartzea eta emakumearentzako arretera zerbitzua egotea eskatu zuten. Osasun kontseilariak Doneztebera etorriko zela agin-

du zuen orduan, eta horren harira egin zuen bisita hilaren 20an.

Binakako pilota txapelketan izen emateko epea

Erreka elkarteak Eskuz Binakako VI. Pilota Txapelketan parte hartzeko deia egin du. Aurturaren benjamin, alebin, infantil, kadete, junior, bigarren mailako senior eta senior elite kategorietan jokatu da. Maila guztietan parte hartu nahi duten pilotari guztiei irekia dago txapelketa, senior elite kategorian izan ezik, hemen gonbidapen bidez etorriko baitira bikoteak. Txapelketa 2008ko urtarrilaren erditsuan hasiko da eta martxoko lehen hamabostaldian akitu. Izen ematea abenduaren 7a arte egin daiteke 948 450991 fax zenbakira idatziz. Txapelketa kanporaketa bidez jokatu da eta federazioko lizentzia nahitaezkoa izanen da.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: Lo Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

BERA Zere inguruak klase guztietako insektoz (somorro, zineorra, ormirra, kukuxu...) eta errotoz sagotuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 · Zelen, 42 A · BERA

BAZTAN

Udaleko Gobernu Batzordeak Magnaren proiektuaren inguruan duen proposamena aurkeztu du

Informazioan, eztabaidan eta kontsultan oinarrituko da

ttipi-ttapa

«Baztandarrek harrobiaren proiektuaren kontra eta alde dauden baldintzak eta arrazoiak zein diren hurbi-letik ezagutu ditzaten», Udaleko Gobernu Batzordeak bere proposamenaren berri eman du. Hala, iritzi «osatu, arrazoizko eta zuzena» bil-tzea da helburua, eta horretarako bortz atale-tan bereizitako plana da aurkeztu dutena:

Batetik, Informazio, Eztabaida eta Kontsul-ta Plana Batzar Nagu-sian aurkeztea da as-moa, eta eztabaidatu ondotik botazioa egitea.

Bigarrenik, «proiektuaren iritzi ezberdinen inguruko informazioa emanen da, eta lau kuar-teletan eginen den bil-kuretan eztabaidak egi-nen dira».

Hirugarren atala hausnarketarako izatea

proposatu dute. Kuar-teletan egindako bilku-ren ondotik, «herrieta-ko alkateei eta Batzar Nagusiari Batzarretan botatuko diren jarrerren berri emanen zaie. Aldi berean, horren inguruan informazio kanpaina sa-kona eginen da».

Laugarren atalak 15 batzarretan herri kon-tsultak egitea aurrei-kusten du. Eta azkenik, bosgarren eta azken fa-sean, kontsultaren emaitza bildu eta Batzar Nagusira eramanen lit-zateke, eta hala, Uda-laren plenoan berretsi eginen litzateke.

Udaleko Gobernu Batzordeak aukera ho-ri «demokratikoena» eta Balleko araudiarekin bat datorrena dela dio.

Rakel Goñiren dimisio eskaera

Rakel Goñi NaBaital-deko zinegotziak lane-



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Herri kontsultaren aldeko manifestazio jendetsua

Erdiz Bizirik plataformak deituta, manifestazio jendetsua —2.000 lagun antolatzaileen arabera— egin zen azaroaren 10ean Elizondon, Magna enpresak Erdizen egin nahi duen harrobiari buruzko erreferenduma egin dezaten eskatzeko. Antolatzaileak pozik ageri ziren manifestazioak izandako harrerarekin. 17:00etan abiatu zen Elizondoko plazatik eta karriketara barrena ibili ondotik berriz bueltatu ziren plazara. Aziendarik ere ez zen falta izan, zaldiak, behiak eta ardiak han izan baitziren. Plazako ekitaldian, plataformako kideek Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuari «arduraz» jokatzeko eskatu zioten, eta Baztango Udalarari, berriz, «trankpak eta gezurrak alde batera utzi eta baztandarren borondatea errespetatzeko». Bide batez, sinadura bilketa martxan paratua dela ere gogor-razi zuten antolatzaileek, eta horretarako baztandarrek Herriko Etxean si-natu beharko dutela.

ko arrazoiak tarteko, dimititzeko asmoa azaldu zuen urriaren 9an ida-tzi baten bidez, eta ha-la, bere kargua bete-tzeko tramiteak egiten hasteko eskatu zuen. Baina NaBairen ze-rrendan ondotik heldu diren hiru lehenbiziko-ek kargua hartzeari uko egin zioten, Carlos Ga-raikoetxeak, Izaskun Etulainek eta Mirentxu

Oiartzabalek. Horrega-tik badirudi, hutsik gel-ditutako kargua Miguel Angel Garaioa Muñoa-ren esku geldituko de-la, hala onartzen badu.

Ikaspilota Topaketa Elizondon

Nafarroako Ikastolen Elkartearen ekimenez, asteazken honetan, azaroak 28, egin zen Eli-

zondon Ikaspilota To-paketa. Lesakako Tan-tirumairu, Berako La-biaga eta Baztan Ika-solako 5. eta 6. mailako ikasleak elkartu ziren eta 10:00etatik aitzinera pi-lotariak txoko diferentetan banatu eta pilotan aritu ziren. Tartean go-saria eduki zuten eta pi-lotari profesionalekin egoteko aukera ere izan zuten.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatua

Tfno.: 948 581 468
Mug.: 630 354 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Arraiozko zeharbidea berritzeko lanak egiteko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Gobernuak

Zoladura-lanak egiteaz gain, ur fekal eta euri-uren hornidura eta saneamendua ere berrituko dira

Maite OTEIZA

Arraiozko zeharbidetan eraberritze lanak egiteko akordioa sinatu dute Baztango Udalak eta Nafarroako Gobernuak Herri Lan Sailak. Zehazki, errepidea berritu eta zoladura-lanak egiten dira zeharbidean. Lanak egiteko hasierako aurrekontua 1.253.976,30 eurotan ezarri dute, eta horietatik 568.375 euro Gobernuak ordainduko ditu. Aipatu, zoladura lanak egiteaz gain, ur fekal eta euri-uren hornidura eta saneamendua ere berrituko direla, baita elektrizitatea, telefonia, argiteria eta gas zerbitzuan berrikuntzak egin ere. Obrak egiteko hartu beharreko neurriak Baztango Udalaren esku geldituko dira.

Bertzalde, herriko plaza zeharkatzen duen ibaiaren kanalizazioak herritarren kexa piztu zuen hasieratik, eta azaroaren 5ean obrak gelditu ere egin zituzten. Hala, joan den azaroaren 14an Amelia Salanueva Nafarroako Go-

bernuko Tokiko Administrazio kontseilaria eta Begoña Sanzberro Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria Arraiozen izan ziren, eta Hidrografia Konferentziarekin eta Udalarekin adostasun batera ailegatzeko konpromisoa eman zuten.

Santa Zezilia besta Baztanen

Santa Zezilia eguna zela eta, Baztan Musika Eskolak atek ireki eta musika Elizondoko karriketarat atera zuen. 17:00etan bere egotzatik abiatuz, Giltxaurdi, Jaime Urrutia, Txokotoko zubian barna ibili ziren, eta Antxitoneatik bueltatu ziren merienda goxo batekin akitzeko eguna.

Eguberrien atarian, hurrengo ekitaldiak ere iragarri dituzte: abenduaren 18an Elizondoko zahar-etxean eta abenduaren 22an Elizondoko elizan (nahiz eta Arizkungo elizan iragarri, Elizondoko eliza obretan zegoelakoz).



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Elbeteko Lekuederrea baserria kiskalia

Suak erabat erre zuen azaroaren 19ko gauean Elbeteko Lekuederrea. Itxura denez, tximiniak berotutako kapirioren batetik sortu zen sua belarra edukitzeko erabiltzen zen ganbaran, eta zurezko egitura izaki, etxe osoan zabaldu zen. Suhiltzaileek gau osoan aritu ziren sua kontrolatzeko lanetan, baina suak erabat hondatu zuen baserria. Dena den, zorionez, etxean bizi diren lau bizilagunak onik atera ziren eta baserrian eta ondoko bi bordetan zituzten behi eta zaldia ateratzeko astia izan zuten.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Gaspar Castellano historialaria Erratzuri buruz


Gaspar Castellano historialariak Erratzuri buruz egin duen doktoretzari buruzko mintzaldia eskaini zuen Erratzuko Kastonea etxean: *Erratzu en la hora baztanesa del XVIII*. Iruritatik kanpo sortu zen baina bere haurtzaroa Iruritan pasatu zuen. Gaztaroan Zaragozara joan zen bizitzera, zuzenbide ikasketak egin eta Ejea de los Caballeroseko udaletxeko idazkaria izan zen. Politikan ere bere pausak egin zituen: Zaragozako Diputazioako presidentea, Baztango Udaleko zinegotzia eta Nafarroako Parlamentuan ere eserita egon zen. Gure herrietako historia gustuko duen pertsona da, eta beti prest dago edonorekin gaiari buruz solasteko.

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zuzendaritza errep. 3. km
URDAZURI

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenetik
larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Etxegintza gehigarria





Angel TRANTXE
elektrizista

Instalazio
elektrikoak

Konponketak



Tfnoa.: 948 452 246
Mug.: 679 454 113
ELIZONDO

APARAN, S.A.
ERIKOLAIA eta ZURAK



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

BAZTAN
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak:
egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METAICOS S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiak
- Mantenu rodilloak

Igantzikoko bentak
948 63 74 11



**BERTIZARANA
TAILERRAK**
ERRETEGIAK ETA BARBAKOAK
ESTRUKTURA METALIKOAK
ATEENDAKO MEKANISMOAK - ATEAK
BARANDA ETA FORJA ARTISTIKOAK

Tel-Faxa: 948 592243 • NARBARTE

Composites Baztan
Poliesterezko lanak



- Inpermeabilizazioak: terrazak, igerilekuak, depositoak...
- Fosa septikoak, koipe banatzaileak.
- Depositoak fabrikatzen ditugu.
- Karrozerien errebestimenduak, furgonetak, erremolkeak, traktoreak.
- Era gutzietako molde eta piezak egiten ditugu, produktiorako.
- Kanaloiak, neurria eginak, altzairua baino egonkorragoak.
- Produktu desberdinak, karretilen karkasak, saskiak, txakurren kaxak...

Tel.: 948 581 824 • Faxa: 948 581 852
email: compositbaztan@terra.es

Zaldubia industrialdea, Iruña - Dantzarinea errep.
31730 IRURITA.

**AGUSTIN
PORTU**
aroztegia

Ameltziaga - Kaule auzoa • BERA
Tfnoa: 948 631 058 • 670 422316

ALEMAN
zerrategia, SL

Teilaturako estrukturak
(douglas pinua, haritza...)
Tarima
Portxeak tamaina egokian
Laminatuak
Egur trinkoa
Tratamentuak

Frantziako erpe. z/g • ERRATZU • 948 453 173

APITTU
ALUMINIOAK

Aluminiozko leihoak, Kontraleihoak, Ateak
Garajeko ateak eta Barandilak

Otsango Auzoa, 7 - Pab. - LESAKA • Tel/Faxa: 948 638 297
apittu_aluminioak@ya.com

AA **ASTIZ
ANAIK**
zurgindegia

zurgintza
lanak orokorrean

Aldude etorbidea, 5 • ELIZONDO
Tfnoa: 699325449 • 948 580886

arteka
arkitektura arquitectura



Juan Mari Aleman - Patxi Valer

Obra zuzendaritzak
Lur neurketak...

Tel: 948 600610
Fax: 948 452434

Plaza Doctores 11A
31700 Elizondo
Navarra

Etxeko argiak

Fakturan aurrezteko aholkuak

Argindarraren tarifa-igoerak direla-eta fakturan aurrezteko, aholku eta ohitura soil-soilak betetzea arras egokia dela frogatu da.

- Jarri **bonbilla konbentzionalen orde**z (hauexek baitira guttien irauten eta gehien kontsumitzen dutenak) lanpara "eraginkorrak" (fluoreszente konpaktuak, erreaktantzia erradioaktiborik gabeak eta boltaje apaleko halogenoak): argitasun berbera ematen dute, 8 bider gehiago irauten dute eta energiaren %80rainoko aurrezkiek egiten dute. Espainiako Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) arabera, bonbilla tradizional baten ordeztu kontsumo apaleko beste bat jartzeak, bigarren honen bizitza baliagarria amaitzean, 60 euro baino gehiagoko aurrezkiek ekarri du.



- Etxean daukazun kontsumo handieneko hiru bonbillen ordeztu kontsumo apaleko hiru baliokide ipintzen badituzu, argiterian gastatzen duzuna erdira jautsiko duzu eta, aurrezki hori esker, erositakoak zortzi hilabetetan bere burua ordainduko du. Hortik 5 urtera, aurrezkiek 300 euro ingurukoa izanen da.

- Lanpara **fluoreszente konpaktuak** energia aurreztaile apartak dira, are eta gehiago etxebizitzako kontsumo elektrikoaren %20 inguru argiterian gastatzen dena dela kontuan izanik. Arras litekeena da, behar hainako argitasun naturalik ez duten bizitza batzuetan gastu hori argindarraren faktura osoaren erdia ere izatea.

- Jarri fluoreszenteak argitasun handia behar duzun tokietan, argia denbora luzean pizturik eduki behar baduzu: sukaldean, bainuan, etab. Fluoreszenteak goriak baino 10 aldiz gehiago dirau eta lau aldiz energia gutxiago kontsumitzen du. Ez ibili etengabe piztu eta itzaliz, horrek lanpararen bizitza laburtzen baitu. Fluoreszentea itzaliz 20 minutu baino gutiago egotea bada, hobe duzu pizturik edukitzea.



- Lanpara guztiek, hautsik gabe egon behar dute, garbirik, igortzen duten argitasuna zikinkeriak traba ez dezan.

- Ahal den guztietan, balia zaiten argitasun naturalaz. Egun argiz, eduki zabal-zabalik gortina eta pertsianak, eguzkiaren argitasunari ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Piztu argi artifiziala egiaz behar duzunean bakarrik. Inor ez dagoen tokietan ez utzi argirik piztuta.

INSTALACIONES ARKALE c.b.

- Gas instalazioak
- Iturgintza orokorrean
- Kalefakzioa eta Aire egokitua
- Mantenu lanak
- Zintzilikatuta egiten diren lanak

Tfno: 948 450 172 - 610 509 177
Amezola, 10 - DONEZTEBE

Iñaki OLAIZOLA

- * elektrizitatea orokorrean
- * muntaia elektrikoak
- * alarmak

Bittiria karrika, 39 - LESAKA
948 637 405 - 670 417 499

D

◀◀◀◀ H I R U K I D E ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶▶▶ Iturgintza 630 441 315
Industria mantenimendua ◀ 628 015 933
Aire egokitua ◀
Elektrizitatea ◀ 606 980 440

Zelai Industrialek 42 B - 15 • 31700 BERA (Nafarroa)
Fax: 948 625 392 • email: zerbitzu@bera.es

IRIBARREN
zurgindegia

LEIHOAK:

- Obrako lanak orokorrean
- Tarima, ateak, eskailerak

Antsolokueta 28, behea
948 635 071 • ETXALAR



TEILAK



TRISO-SUPER 9



SUKALDEAK



ALMACO
BAZTAN



VELUX-ak



ZERAMIKAK



- Etxegintza eta saneamendu materialak
- Teilatuak • Paretak
- Kapa anitzeko isolatzaile termo-isladatzaile aukera

948 580 104 • 948 580 366 • ELIZONDO



188.450 €



Etxebizitzetan adituak (inmobiliariak)
bortziriak-malderreka-baztan

Sunbillan
188.450 €

(3 logela - 2 wc - 83,27 m²)

Zatuz Nafarroako iparraldera bizitzera

SUNBILLA

Lekueder Karrika, 9
Telf.: 948 450 188

IRUN

Rentería Karrika, 5
(San Miguel)
Telf.: 943 578 419

Mugikorra: 617 205 320

Info@iriargi.com

www.iriargi.com



Errazun Duplex

- 60 m²-ko pisua eta 41 m²-ko atika
- Mobbiltua eta sukaldia berria.
- 214.600 €



Narbarten Pisua

- Pisua + lor eremua + garaje.
- 90m² - 3 logela - 1 wc.
- Mobbiltua
- 100 m² lurra
- 190.200 €



Sunbilla Bakarreko etxea

- 90,50m² - 3 logela - 2 wc.
- Otrra berria (2004)
- Garajea eta lurra
- 306.550 €



Energia sortzen duten aerosorgailuak


Haizea aprobetxatuz, energia norberaren etxean

Etxeko erabilerarako energia sortzen duten aerosorgailuak hasi dira paratzen etxeko teilatuetan.

Produktua Alemaniatik dator eta hagitz harrera ona izan du Nafarroan. Enflo izeneko aparailuak dira, haizearen bitartez energia sortzen duten aparailu tikiak.

Energia berriztagarriek gero eta garrantzia handiagoa duten garaian, antena paraboliko baten neurriko tresna sortu dute, 70 zentimetroko diametroa duena eta urtean 400 kilowatio sortzeko gai dena. Etxeko teilatuan paratu eta sare elektrikora zuzenean konekta daiteke, eta hala sortzen du energia.

Tresna isila dela erraten da, ez zaratarik, ez bibraziorik egiten ez duena. Prezioa 3.000 euroren inguruan dabil.



Etxebizitza bakoitzaren energia kontsumoa hila-betean 400 watio ingurukoa dela kontuan hartuz, eta *Enflo* delakoa urtean 400 kilowatio sortzeko gai dela jakinda, badirudi, etxeko beharrak behar bezala asetzeko prestatua dagoela. Hori bai, haizearen indarra hobeki bereganatzeko teilatuaren goiko aldean paratzea komeni da, leku huts batean, ahal dela, inguruan eraikinik gabe.

Izan ere, etxebizitzaren egiturak berak badu eragina energia lortzerakoan; herrietako etxe zein txaletetan ez da arazorik izanen. Aitzinetik etxebizitza ugari dituzten eraikinetan, ordea, gabezia batzuk sor litezke.

Gaur egun Alemaniatik datorren tresna den arren, heldu den urteari begira, Nafarroan egiten has-teko asmoa dago.



ETXEBESTE
Iturgintza • Kalifikazio • Gasa
948 630 002 • 670 412 998
Herriko Etxeko Plaza, 11
BERA

Pinturas Irular
• Kanpoko eta barneko pinturak
• Kolore guztiak ordenadore bidez prestatzen ditugu
• Pintura industrialek
• Alfibrak eta moketak
• Zurajeendako tratamenduak
• Fraktalis
• Paper pintatuak
948 45 22 50
IRURITA
AUKERA ZABALA

EZPELURA ITURGINTZA S.L
Kalifikazio • Gasa
Elektrizitatea • Eguzki plakak
Zoru bero emailea
Tfnoa.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

Shota
Pintura Dekorazioa
Barrualdeak - Fatxadak - Obra berriak
Dekorazioan berrikuntzak...
Mendigorrigaraia Baserría - Garaitarres auzoa
Tfnoa: 948 63 14 89 - Mug: 666 43 39 71
BERA



ATERATZEA ETA LANTZEA

- Antzuzelak
- Angeluak
- Orma antzinak
- Lailuak
- Ateak
- Arkuak
- Pilareak
- Tsiminak
- Erlozak
- Moldurak
- Zokaloak
- Hilarriak
- Marraskiak

Abujandaoa Zahar antzekoa
Mazizoa Txapeatus

HARRI NATURALA

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

Irungierrep. • BERA • Tel. 948 63 13 17



ITURRALDE
pvc & aluminio

667 264 025 • 948 581 967
maxene@terra.es

ARIZKUN
zerrategia

- Zerrategia
- Zurezko teilatuak

Dantxarineako errep. • ARIZKUN
Tfnoa: 948 453 304



Lizardi
Telekomunikazioak



TDT Instalazioak
TB Instalazioak
(satelite, lurrekoak)
Instalazio indibidualak eta kolektiboak
Portero automatikoak
Etxeko hari musikala

Tel. 670 415 720
joxeanlizardi@hotmail.com

Euriborra

Azken bi urte hauetako etengabeko igoerak biziki kaltetu ditu sakelak

Euriborrak markatzen du Europa osoan kontratatuta dauden hipoteken indizea. 2005az geroztik hilabetero etenik gabe gora egin du indize horrek, eta urri honetan, lehenengo aldiz, hausti egin da joera hori %0,08ko merketze arin batekin. Euriborraren jautsiera berri ona da hipotekaren bat kontratatuta duten guztientzat, baita higiezinaren sektore osoarentzat ere. Izan ere, higiezinaren sektorea bereziki kezkatua dabil azken aldiotan hipoteken gorakada etengabeak etxebizitzaren salmentan ekarri duen moteltzearekin.

Dena den, 2005eko irailaz geroztik euriborra %2,31 goratu da. Horrek eragin du batez besteko hipoteka bat (150.000 euro 25 urterako %0,5eko diferentziazarekin) hilabetean 690 euro ordaintzetik 897 euro ordaintzera pasatu dela.

Hipoteken baldintzak errebisatzea

Euriborraren presioak eraginda, milaka pertsonak erabaki dute euren hipotekaren baldintzak errebisatzea. Hala, gero eta jende gehiagok erabakitzen du amortizazio epea luzatzea, eta batez bertze, 26 urtekoa da epe hori momentu honetan. Hipoteka-mailegu gehien gehienak etxebizitza erosteko erabiltzen dira gaur egun.



Kredituak bateratzea baino hobe epea luzatzea

Hilabete bakoitzean ordaindu behar den kopurua zertxobait arintzeak ez da beti aukerarik hoberena. Jakitunen iritziz, hipoteka-kredituaren epea luzatzea da gastu guttien eragiten duena. Hagitz larriak ez diren kasuetan, bankuekin negoziatzen ahalegindu behar da, eta hipoteka-mailegua itzultzeko epea luzatzen saiatu. Hartara, interes gehiago ordainduko da denbora gehiagoan, baina aldi berean, hilabeteko kuota jautsi egiten da. Horrek momentuko estualditik atara lezake kontsumitzailea. Guztia bitartekari baten bidez kudeatzea, berriz, gastu gehien eragiten duen bidea da. Bitartekariak entitate ezberdinekin negoziatuko du eta kontsumitzailearen aukera onena zein den aztertu, baina trukean komisioa kobratuko du.

Behar puntuala denean, hurbileko bati eskatu mailegua

Ahal den neurrian, komenigarriagoa da mailegua hurbileko norbaiti eskatzea. Eta gero, arazorik egon ez dadin, itzulpena nola eginen den xehetasunez zehaztu. Aukera hori eskuragarri ez badago, banku ezberdinetara jo eta negoziatu daiteke, eta proposamen onena onartu. Azken aukera gisa, bitartekariaren bidea hautatzen bada, baldintzak ongi aztertu deus sinatu aitzinetik.

EURIBORRA
%2,31 +

Europako hipoteka gehienak indize honen arabera erabakitzen dira.

2007ko urria	%4,647
2007ko iraila	%4,725
2007ko abuztua	%4,666
2007ko uztaila	%4,564
2007ko ekaina	%4,505
2007ko maiatza	%4,373
2007ko apirila	%4,253
2007ko martxoa	%4,106
2007ko otsaila	%4,094
2007ko urtarrila	%4,064
2006ko abendua	%3,921
2006ko azaroa	%3,864
2006ko urria	%3,799
2006ko iraila	%3,715
2006ko abuztua	%3,615
2006ko uztaila	%3,538
2006ko ekaina	%3,401
2006ko maiatza	%3,308
2006ko apirila	%3,221
2006ko martxoa	%3,100
2006ko otsaila	%2,910
2006ko urtarrila	%2,833
2005eko abendua	%2,783
2005eko azaroa	%2,684
2005eko urria	%2,414
2005eko iraila	%2,219



ETXEBERRIA
ZIRGINDEGIA
Jose Miguel Etxeberria

Zurgin lanak orokorrean

Tel.: 948 450310 • Mugikorra: 608. 677 997
ELGORRIAGA

GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.
Ingenieria Tekniko Industriala

- Bulego teknikoak:
- Proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
- Instalazio elektrikoak
- Etxeko eta industriako elektrizitatea
- Enpresen mantenimendua, etab...

DANIEL FERNANDEZ TELLETXEA

- Baimendutako instalatzailea
- Instalazio fotovoltaikoa
- Eguzki-energiako plakak

Elizagibela, 5 • Tfnoa-Faxa: 948 450 760 • DONEZTEBE

Lijatzeak • Barnizatzeak

J.L. Iturbide Irisarri

948 453 008 / 696 357 496
Tximindo karrika, 48A • 2.C • ARIZKUN

IGELTSU PROIEKTATUA LOIZATE YESO PROYECTADO

J.M. Mitxelena
689 908 665

A. Larretxea
661 185 484

Larreta, 14 • 31790 ARANTZA (Nafarroa)
Tfnoa: 948 634 199 • 948 637 750

TOLDOS BAZTAN, S.L.



- TOLDOAK salmenta-konponkata
- alokairua - errotulazioa
- MOSKITERAK - PERTSIANAK motorizatuak
- Venecianak - PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tfnoa-Faxa: 948 631 003
Bidasoa, 66 • BERA



TXARUTA, S.L.
iturgintza
kalefakzioa
gasa



948 45 17 28 • 659 77 00 15
GAZTELU

Fernando Orset Mauleon arkitektoa



HORMIGOI ETA ZUREZKO
EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN
PROIEKTU ETA
ZUZENDARITZA TEKNIKOA

Iurlandeta 6 • BERA
Tel. eta Fax: 948 625 409

Kafazpegi Auzoa, 6 Dendaineta Etxea 31770 Lesaka-Navarra
Tel: 948 627 554 • 656 763 186

►Txus Ubiria Andueza
margoketa lanak • pintor



ZALDUBI
SUKALDEKO MOBLEAK

Martin Lizasoain Adansoa
Etxetresnak • Armairuak
Komunak • Manparak

Tel: 948 580 562 • Faxa: 948 581 859
Zaldubia Industrialdea • 31730 IRURITA

**APEZTEGIA
BERRIA**



TRESNERIA:

Zurgindegirako, aroztegirako,
lorategirako eta baratzerako.

PINTURA:

Titan, esmalte, fatxada, monogeruza...

Bondex, distiragabe eta satinatua

Xiladecor, distiragabe eta satinatua

SARRAILAGINTZA Tesa, Azbe...

BURDINERIA, ARMAZOI LERRAGARRIAK
ATEAK, ARTIKULU AUKERA ZABALA

Elizagibela, 1 • DONEZTEBE • 948 450 994



Alicia T. Erlanz

BEHAR DITUZUEN
LAN TXIKI HORIENTZAT
GREMIOEN
KOORDINAZIOA

SERVI-LAN

ofiziale guztia
SERVI - LANen

Elizagibela, 5 • DONEZTEBE
Tel: 948 456 193 • Faxa: 948 450 760

Carpinteria
EZPELA
Zurgindegia

BERA

678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)

GAZMENDI
eraikuntzak

San Joan barrika
Sara Rando - SORBILLA
Tel: 948 450 180 - 948 451 846
Mug: 619 469 784

TALLER DE CANTERIA

HARRI LAN, S.L.
harri zizelkariak



Oharriz auzoa z/g
☎ 948 452143 • Faxa: 948 452452
31795 - LEKAROZ



ILLURDI
zurgindegia

Klase guztietako
zurgin lanak

- ateak
- tarimak
- parketak
- leihoak
- eskailerak
- teilatuak
- portxeak
- teilak
- isolamenduak

670 30 35 20
680 98 68 36
31790 ARANTZA
Nafarroa

Pladurra

Hamaika erabilerako zelulosa

Isolatzailer termiko eta akustiko gisa dituen abantailez gainera, apainketan, altzarigintzan eta erabilera industrialetan baliatzen da pladurra.

Etxegintzan pladurra erabiltzeak hastapeneko alor anekdotiko hutsa aspaldi gainditu zuen, hamaika erabilererako balio baitu: erabilera industrialetan, brikolajeetan eta, batez ere, apainketan baliogaitzen da material honen arintasuna eta instalatzeko azkartasuna.

Kostua osaketaren arabera aldatzen da. Pladurra, igeltsuzko barnealde estaltzen duten zelulosazko bi geruzak osatzen dute baina, segun-eta zertan erabiliko den, barnealde hori sendotua edo beste material batzuekin (beira-zuntzarekin, adibidez) osatua egon daiteke. Emaitza: ukipen atsegineko plaka, erresistentzia handikoa, baita suaren aurrean ere. Era askotako bukaera eman dakioke, gainera: pintura, papera, berniza, azulejoa...

Jartzeko unean, pladurra altzairu galbanizatuzko egitura batean kokatzen da; egitura hori hezurdura izanen da eta haren gainean plakak josi eta paper berezi batekin elkartuko dira. Eragiketa hau amaituta, torlojuak eta balizko akatsak masilla berezi batekin estaliko dira, bukaera uniforme erdietsi arte. Eragiketa garbi eta lehorra da eta obralari bezainbeste hauts ez du harrotzen baina pazientzia handia eskatzen du, plakak zehatz-zehatz doituko badira.



Plaka-motak

Pladurraren jatorrizko ekturra igeltsu eta zelulosak osatua badago ere, barne-plaka hori hainbat materialezkoa izan daiteke, emanen zaion erabileraren arabera.

- **Estandarrak.** Igeltsu zuri eta zelulosazko bi kanpo-geruzak osatua. Hauxe da oinarriko plaka eta hemendik abiatuz fabrikatzen dira gamako gainekoak. Metro koadroaren prezioa: 5 - 10 euro.
- **Gogor sendoa.** Bere diseinuari esker, gorputz gogorren kolpe eta inpaktuak hobeki pairatuko ditu eta, gainera, isolamendu artistiko ona erdietsiko du horrela. Ospitaletan, aisialdi zentroetan eta tankerakoetan baliatzen da. Metro koadroaren prezioa: 25 - 30 euro.
- **Suaren kontrakoa.** Barne-geruza igeltsuz eta beira-zuntzez osatua dago: material horrek sareka gisa dihardu, su-garren kontrako erresistentzia areagotuz. Metro koadroaren prezioa: 7 - 30 euro.
- **Uraren kontrakoa.** Kanpoko zelulosazko plakak silikonaz tratatu dira, hezetan xurgapena apaltzeko. Plaka hau biziki baliagarria da sotoetan eta bainuetan. Metro koadroaren prezioa: 20 - 30 euro.

Javier Manterola
Tekniko instalatzailea
 iturgintza • gasa • kalafakzioa
 ☎ 629 449602
 Iturlandeta 4, behea • BERA

JOKIN
 IGELTSARITZA
 OROKORREAN

ERREFORMAK OROKORREAN:
 • Sukaldeak, Komunak, Ebebizitzak...

eta gutxienez berritze lanak

Tel: 948 451 478 - Mug: 615 751 830
 Enketa, 9 - 31701 SANBILLA (Nafarroa)

BORTZIRI
 UNSION ANAIAK
 Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESAKA
 Tel: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

LUCIANO IRIARTE S.L

ESKABAZIOAK • ESKOILERAK
 LUR MUGIMENDUAK
 Tel: 948 592 139 - 649 947 181 - 649 947 182
 NARBARTE

JOISA



**AROTEGIA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
MAKINA ERREMINTA**

- Barandak, balkoiak, hesiak, forja artistikoa...
- Piezen fabrikazioa; tornoak, fresadora
- Ate automatikoak

ADU 16 Pol. Ind.
LESAKA 31770
Nafarroa

Tel.-Faxa: 948638150
Mugik.: 646774117

DONEZTEBE

ERAIKUNTZA MAKINA ETA
ZERBITZUEN ALOKARIUA

- Kamioi grua teilatuak egiteko eta moldatzeko
- Materialen garraioa
- Mailu, elektrizitate sorgailuak andamioak kompresorak...

Leizaola Infa - Tel: 948 451 703 / 659 702 694 - DONEZTEBE

ingurulan

-Neurrira eginiko altzariak eta osagarriak, egurrakin, burniak...

-Inguru moldatze lan tikiak, zokalo, tarima, ate paratzeak. Erremateak...

-Kutxak, tximenei buruak, betiko altzariak, neurrira eginak.

-Egurrezko armariak eta bertzelako talak.

Tlfnoa 661 086 206
joseba@ingurulan.com

Urrotz

Zuk nahi duzuna ezpaduzu inon aurkitzen, galdetu nola konpondu dezakegun zure leku moldatze eta apaintzearen beharrak.

Egurrezkoak eta bukaera sintetikoak

Altzarien merkatuak aukera zabala eskaintzen dio bezeroari


Ohe aproposa, arropa armairu egokia edo jantokiko mahaia hautatzeko sekulako pazientzia hartu behar izaten da, estilo, diseinu eta prezioen aukera amagabea delako. Baina, horrez gainera, erosi nahi denaren berri luze-zabal izatea ere komeni izaten da: materialen kalitatea, garbitzea, kontserbatzea, zona lehor edo hezeetan zahartzea, etab. Merkatuak eskaintzen duena, nagusiki, bitan banatzen da: bukaera sintetikoko altzaria eta egurrezko altzaria. Lehenak prezio merkeagoak eta diseinu gehiago ditu. Bigarrenak, bukaerako fakturan nabarmenduko den zur lana, eskulangintza, hitz batez.



Ohikoena, egurrezko atala altzariaren kutxa edo ingurukoa bakarrik izatea da. Estrukturaren gainerakoa aglomeratu, kontraxapatu edo zuntzeko oholekin moldatzen da. Horrelakoak arboletako adar, azal, zerrauts eta txirbilez ekoizten badira ere, tenperatura edo hezetasun aldaketan aurrean altzariaren jokiera hobea bermatzen dute. Zumea, rattana eta melamina ere baliatzen diren arren, zura da denetan maitatuena. Nolanahi ere, zur edo egurretan ere alde handiak daude.


Oinarrizko batek hurrengoak bereizten ditu

- **Egur gogorra:** garestiena eta iraunkorrena. Alde honetara eginez gero, koba, haritza, gaztaina, pagoa, gerezia, intxaurrea, lizarra, wenge edota teka, berteak berte. Prezioa: armairu bat erosteko 1.000 eurotik gora.
- **Egur samurra:** merkeena eta arinena. Honelako zurak dira pinua, izeia, makala eta urkia, adibidez. Samurra da lantzeko baina horrek ez du erran nahi gutti iraunen duenik. Prezioa: armairu bat erosteko, 700 eurotik gora.



Altzaria kalitadeduna den ezagutzeko elementuek

- **Ertzak.** Altzari sintetiko baten ertzak irregularrak eta itsatsiak egon ohi dira; zurezko altzariak, oholtzen kasuan, elkarri itsatsitako lamez edo pieza bakar batez osaturiko amaiera perfektua dauka.
- **Bazterrak.** Biribildurik egon behar dute, kolperik hartuz gero, kalte edo mina arintzeko.
- **Kolorea.** Egur naturalezko altzarietako nabardurak, betak eta kolore ez uniformeak agertzen dituzte.
- **Bukaera.** Altzaria bainuan jartzekoa bada, kanpo aldean korrosioaren kontrako berniz edo pintura eduki behar du. Haurrentzako altzariak direnean, garrantzi handikoa da pinturak berunik ez edukitzea.
- **Distira.** Distira handiegiak ikusmen-nekea eragiten du, are eta gehiago altzari horretara begira luzaro egotekoa bada.
- **Erresistentzia eta ergonomia.** Armairuak itxura sendoa erakutsi eta ergonomikoa izan behar du, hau da, gauzak hartzeko eta uzteko aukera erraza emanen duena. Loturek pisuaren aurreko erresistentzia agertu behar dute eta, altzaria haurrek badarabilte, erabilera intentsiboagoa jasateko modukoa behar du izan.
- **Estalki seguruak.** Estalki horizontalek, ixtean, inor kolpa ez dezaten, bat-bateko itxiera eragotziko duten elementuak eduki behar dituzte.
- **Aireztatzeko sistemak.** Altzari edukitzaileak –kutzak eta antzekoak– barrualdekoa aireztatzeko zuloak edo antzeko mekanismoak eduki behar dituzte.
- **Egurrezkoak edo bestelakoak izan daitezke;** garrantzitsuena, ongi fabrikatuak egotea da, atzealdea ondo bukatua (arraspatu eta bernizatua), doitze perfektua eta aurreikusiriko gehieneko kargaren araberako labaintze-sistema edukitzea.



ESTILOAK, EGURRAK

- **Inperioa.** Arrosa argi eta zerrodun unformatuko kaobazkoak, batik bat, linea klasikoko altzariak.
- **Neoklasikoa.** Zur finak, hala nola haritza –horixka, erresistentzia handikoa– edota intxaurra –marroi arrexka eta zerrodun oparokoa–. Lerro zuzenak, itxura soilekoak, baina dotore-dotoreak.
- **Koloniala.** Gerezia –tonu gorrixka eta zerrodun distiratsua– eta bernizez trataturiko intxaurra darabiltza, batik bat, zahartu airea emateko.
- **Probentzala.** Gerezia darabilte gehien etxe horiek bere-bereak dituzten kutzak eta antzekoak moldatzeko.
- **Landatarra.** Pinu marroi argi edo horixka da estilo honetan hedatuena, “zaharkitua”, maiz. Eskuz landutako armairu, apalategi, liburutegi edota ateez etxeari giro berezia ematen diote.
- **Modernoa.** Txapadun eta melaminazko oholtzekin fabrikaturiko altzari hauen ezaugarriak dira bolumen zabalak edo minimalistak, lerro zuzenak eta modulukoak.



reformas
LASTER
berrikuntzak



SUKALDEAK • BAINUGELAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRA TTIKIAK ETA INTEGRALAK

Paseo Eztegara, 14
31780 Bera. Nafarroa
T/F 948 625 397 • M 667 717 563
eduprojet@gmail.com

Saneamientos GARE

- Baitugelako altzari eta usagarriak.
- Bideratze eta bideratzeak.
- Bideratze instalazioak.
- Gas natural instalazioak.
- Tinkatze teletatik.

Kanttonberri, 10 behe • BERA
Tfnoa: 948 631 107 • Faxa: 948 631 002
Mugikorra: 608 976 034



FERRETERIA

Tfnoa: 948 630 492
San Esteban, 17
31780 BERA



ASTELEHENETIK OSTIRALERA
8:00-13:00 / 14:30-20:00

LARUNBATETAN
08:00-14:00

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

ETXE AGENTZIA



*BAZTAN- BIDASOAN, ULTZAMAN eta IPARRALDEAN
Pisu, apartamentuak, lokal komertzialak, bondak
etxeak, baserriak eta lur eremuak salgai.

Zuzen Aseguruak • Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskala • Inmobiliaria
Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 804 • Fax: 948 581 459
anzabal@anzabal.com

Andueza e Iriarte, S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALACIONES ELECTRICAS

Zalain Ind. 42-4. pabiloia
BERA
639 125 046 • 639 608 34
948 631 452



LABORRA-LARUMBE

arkitektoak

Santiago, 54 - 1,
31700 Elizondo (BAZTAN)
Tel: 948 580 122
Faxa: 948 581 888
E-mail: laborra@terra.es

Konstituzio Plaza, 3 - 1,
3 eta 4 Bulegoak
31600 Burlata
Tel eta Fax: 948 134 563
E-mail: larumbe@es.inter.net



kinttalko
eraikuntzak s.l.
31754 Goizueta (Nafarroa)
Tel. 948 514 036
M. 659 709 495-96

IGELTSERITZA
OROHAR



ION DOZAGARAT OIL

Igeltseritza orokorra

Itzea, 5 • BERA • 689 046 720

Berogailuaren kontsumoa

Ate-leihoetatik eskapatzen da beroa



Neguko hotza iristearekin batera piztu dira berogailuak etxean %85ean eta, beraz, gehitu egin da energia-kontsumoa: argindarra, gas naturala, propanoa, butanoa, egurra eta fuela.

Klima, etxebizitzaren azalera, leiho mota eta kalitatea, eta isolamendu termikoa arras erabakigarriak dira berogailuaren kontsumoan. Behar diren neurriak hartzen baditugu, –geroko utzi gabe– aurre egingen diogu negu gogorrari, poltsikoari kalte handirik eragin gabe. Horrela, harri batez bi kolpe emanen ditugu: dirua aurreztu eta energiaren kontsumoak ingurumenean duen eragina guttitu.

GOMENDIOAK

- Kontrola ezazu berogailuaren tenperatura. Etxean bazaude, termostatoa 20°Ctan eduki egunez. Lo egiteko aski da 15° eta 17° arteko tenperatura. Adi: Etxeko tenperatura gradu bakar batean jaustekak %9ko aurrezpena dakar energia-kontsumoan.
- Ez ahaztu leihoak direla berotasuna atxikitze ahulenak (beroaren galerarik handiena, %40, leihoetatik gertatzen da). Ahal izanez gero kristal bikoitzak jarri leihoetan; %20 aurreztuko duzu.
- Ate-leihoen itxituretan juntura itsaskorrak jarri. %5 - 10 bitartean aurreztuko duzu.
- Pareta eta sabaietan isolamendu termiko ona ezarri. Isolamendurik gabeko etxebizitzetan %70eraino gehi daiteke urtean berokuntzaren gastua, familibakarreko etxebizitzetan batez ere.
- Ez eduki berogailurik alferrik piztuta erabiltzen ez diren lokaletan.
- Etxean bero gehiegi somatzen baduzu, ez leihorik ireki. Hobe da erradiadore batzuk itxi edo tenperatu jaustea.
- Ezarri erradiadoreak leihoen azpian. Leihoetik sartzen den aireak korronteak sortzen ditu eta beroa gela guztian barrena zabaltzen lagunduko du.

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 inufea · imbeke monastegia 62, 4ºC · 31011

Mikel UBIRIA
Eskabazio eta garraioak
619 716 322 · 608 779 641 · 948 637 214
Bitinia Plaza, 8 · LESAKA

Juan Ignacio Oiarzabal
ARKITEKTOA
948 630304 · Ipar karrika, 15 · BERA

Juan Luis Otxoteko PINTOREA
Bitinia 26 - 1ºB · 31770 Lesaka Nafarroa
Tel - Fax: 948 637902
Mobi: 678 993018
KANPO ETA BARNEALDEAK
ESKATU AURREKONTUA KOMPROMEZURIK GABE



ba
Bidasoa arkitektura bulegoa

Arizta 21-6 20100 Leizaola • Tel: 948 631 160 • e-mail: info@baarquitectos.com

Matias MITXELENA eraikuntzak

Etxeak
Zaharberritzeak
Teilatuak

Tfnoa: 948 637182 • 608 777 908 • LESAKA



ttipi-txartela

39 komertziotan deskontuak + aldizkaria doan

deitu eta egin zurea!!
ttipi-ttapa • 948 635 458



txokoberri

- Aluminioan espezializatuak
- Aroztegi Metalikoa (lelhoak, ateak, barandak,....)
- Parket

Eneko eta Alfredo
/ Donamaría / Nafarroa Tel: 618 881 924

JOSE AGERRE pinturak



PINTURA LANAK OROKORREAN

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatzte eta lakatzeak
Parket Flotatzailas jartzen dugu

610 221 528
948 632 144
IGANTZIKO BENTAK

beraclima



Hotz industrialia
Ostalaritza
Klimatizazioa
Aire girotua
Eguzki plakak
Kalefakzioa eta gasa
Instalazio mantenu

Saizgai dauden produktuentzako
Proiektu gauzatzeak
Grotze sistemen instalazioa eta mantenimendua
Aire girotua (Hotza/beroa)
Erauzpena/aireztapena

M 649 47 20 58



GORRITZ
ERAIKUNTZAK-ESKABAZIOAK

LEITZA (Nafarroa) Tlf: 948-530 140/ FAX: 948 530 996

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F.Joakin Iriarte, 5 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 337

Gonzalez anaiak

Pintura lanak orokorrean

MELO
pintura lanak

Tfnoa: 609 873 178 - LEITZA



LEIMEN

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david



AROTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

KORTA ANAIAK

Bidasoa kalea 76, 17. atea
31780 BERA (Nafarroa)
tel/fax: 948 631 651

Fontanería • Iturgintza
www.honestolopez.com

H. LOPEZ
ESKATU AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE

ERREFORMA INTEGRALA
(gremioen koordinazioa)
XURGAPEN ZENTRALIZATUAREN INSTALAZIOA

OPARITZEKO OSAGARRIAK
Toallak:
Agatha Ruiz de la Prada,
Antonio Miró
Albornozak
Lore zentroak
Apaingarriak...

KOMUNEKO ALTZARIAK
Kalitate eta prezio ezberdinetakoak

TXIMINIEN BANATZAILEA

ZODIAC IGERILEKUEN BANATZAILEA

INDUSTRIA eta
PARTIKULARRENTZAT
ITURGINTZA

AIRE GIROTUA

KATALOGO BIDEZKO SALMENTA

Santiago, 93
31700 ELIZONDO
948 452 126
605 708 124
605 719 396

lur eman dituzte urtegia egiteko. Urte hondarrean lanak geldituko dituzte eta lanean hasiko dira berriz apirilean. Urtegi az gain, 600 metra-ko luzetasuna duen saihsbidea egin dute Luberrriako. 650.000 euro gosta da biderrri berri hau egitea. Herritar aintz harritu egin da hiru gauza jakitean. Lehenik ikustea Dantxarinearat doan bidea ez dela zuzena. Alta, agintariak behar ziren eremu zabalak hartu zituzten lanak egiteko. Bigarrenik, urtegia beteko delarik uholdeak gertatzean, Nafarroarat doan bide hau, hautetsiek Ainhoako saihsbidetzat hartzen dutena, urak estaliko duela dio Bernard Auroy Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusiak. Hirugarrenik, urtea baino gutiago du Luberrriako bide osoak, hau da, lehen baliatzen zena berritu zela. Hamar bat hilabeteetan bakarrik egin zen lana.

URDAZUBI

Dantxarri- neako erre- pidean lanak egiteko laguntza jaso du Udalak

Margari eta Koro

Dantxarri gurutzatzen duen errepidea moldatzeko dirulaguntza lortu du Urdazubi-ko Udalak. 3.092.406 euroko gastua duen lanak egingen dira, eta Nafarroako Gobernuak 1.027.071 euro ordainduko ditu. Obrak egiteko eskubideak, berriz, Udalaren gain geldituko dira, eta obrak bukatzean mantentzen diren errepidearen esku geldituko da. Helburua trafikoa antolatzea da eta hala, egiten diren lanak hauek izanen dira: espaloiak eraiki, zola eta zola azpiko sarea eraberritu, mugako azkeneko zatia aldatu eta sei errotanda egin. Udalak eta Gobernuak azaroaren 19an hitzartu zuten proiektua.

Martiko
Ahatekietan adituak eta arituak
Martiko Poi Zelen, s/n.
31780 Bera, Nafarroa.
Tel: 948 625016
Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaleja Industrialdea
LESAGA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505



EZKONTZAK

Iñaki Sanzberro Goñi eta **M^a teresa Iturburu** Etxandi, Elizondo eta Erratzukoa, azaroaren 5ean Elizondon.

Jesus Fermin Larraintzar Irigoien eta **M^a Pilar Fagoaga Martiarena**, Iruñekoak, azaroaren 10ean Elizondon.

Jose Luis Antxorena Elizalde eta **Santos Isabel Jima Jimenez**, Ziga eta Ekuar-dorkoa, azaroaren 16an Elizondon.

Jon Atxurra Goñi eta **Cristina Lasarte Pellejero**, Donostia eta Berakoa, azaroaren 10ean Beran.

Asier Olaizola Apezetxea eta **Goretti Teletxea Lujanbio**, Goizuetakoa eta Leitzakoa, urriaren 27an Goizuetan.



SORTZEAK

Aitor Etxeberria Osua, Berakoa, azaroaren 2an.

Eneko Etxeberria Osua, Berakoa, azaroaren 2an.

Enaitz Zelaieta Muñoz, Elizondokoa, azaroaren 8an.

David Agerrebere Ziaurriz, Elizondokoa, azaroaren 5ean.

Eñaut Altzugarai Ariztegi, Elbetekoa, azaroaren 9an.

Asier Barberena Opoka, Elizondokoa, azaroaren 3an.

Argoitz Erasun Ortuoste, Doneztebekoa, azaroaren 13an.

Maria Aizkorbe Jimenez, Goizuetakoa, azaroaren 17an.

Lesli Aitziber Burga Campo, Leitzakoa, azaroaren 10ean.

Oier Aranburu Canflanca, Leitzakoa, azaroaren 7an.

Oier Ugartemendia Agesta, Sunbillakoa, azaroaren 14an.

Urko Igiñiz Santiago, Urrozkoa, irailaren 21ean.

Silvia Igiñiz Santiago, Urrozkoa, irailaren 21ean.

June Igiñiz Santiago, Urrozkoa, irailaren 21ean.



HERIOTZAK

Pedro M^a Zebrian Arribas, Arizkungoa, azaroaren 12an, 59 urte.

Saturnino Goñi Aranburu, Lekarozkoa, azaroaren 14an, 85 urte.

Silvia Zabaleta Uitz, Leitzakoa, azaroaren 16an, 93 urte.

M^a Angeles Gonzalez Ezpeleta, Arantzakoa, azaroaren 13an, 71 urte.

Arantxa Baraibar Gogortza, Leitzakoa, azaroaren 14an, 43 urte.

Guillermo Martinez Gonzalez, Erratzun, azaroaren 17an, 57 urte.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58



Victoria HITA ARCE «Bittori»

Alejandro Juanikotena Torres-en alarguna

III. URTEMUGA

Cancun-en (Mexiko) hil zen,
2004ko azaroaren 27an

*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.
Gure bihotzetan betiko
maite zaitugu amatxi.
Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA

HERRI KIROLA

Ander Erasun Euskal Herriko aizkolari gazteen txapeldun

Aurtiztarra ongi nagusitu zen Doneztebeko feria egunean jokaturako finalean

A.A. Doneztebeko feria egunean jokatu zen Euskal Herriko aizkolari gazteen txapelketan emozio handia izan zen, batez ere lehen enboretan. Aurtizko Ander Erasun, Leitzako Arkaitz Olano, Arostegiko Julen Kañamarek, Iruñeko Ruben Saralegi, As-teasuko Jokin Alkizalete eta Zumarragako Julen Aranbarri aritu ziren. Oihan eta Garikoitz Larrereia ere txapelketa honetan aritzekoak ziren, baina azkenean ez zuten parte hartu, lesionatuak zeudelako. Aizkolari gazteek bi kanaerdiko eta lau 45 ontzako moztu behar zituzten, eta aipatu bezala, lehia estua izan zen hasieran, batez ere Erasun, Olano eta Kañamarenen artean.

Lan erditan, kasik

berdinak zeuden hirurak. Kañamaresek 4 minutu 39 segundotan moztu zuen, Olanok segundo bat gehiago behar izan zuen eta Erasunek bortz gehiago. Saralegi ere ez zen burutik urrun, 24 segundora eta bi gipuzkoarrak dezente gibelago geldituak ziren.

Baina lehenbiziko lan erdiko ezaugarria berdintasuna izan bazen, bigarren erdiarena Ander Erasun aurtiztarren nagusitasuna izan zen. Pixkanaka alde handitzen joan zen eta azkeneko enborra 10 minutu eta 37 segundotan moztu zuen Ander Erasunek, duela bi urte Ugaitz Mugertzak egin zuen marka hobetuz. Kañamaresek ere marka polita egin zuen, 11 minutu eta 18 segundo.

Aipatu bezala, Olano leitzarra hustutzen joan zen eta azkenean hirugarren postua ere galdu egin zuen, Saralegiren mesedetan. Olanok Saralegik baino 4 segundo gehiago behar izan zituen. Alkizalete izan zen bosgarren eta Aranbarri gaztetxoa seigarren.

BINAKAKO URREZKO AIZKORA ABENDUAN

Ander Erasun gustura zegoen txapelarekin. «Denek faborito bezala jotzen ninduten, baina aste erdian gaizki ibili naiz tripetatik, goitika... Uste nuen ez nuela nirea emanen, baina lortu dut». Hasieran lehia berdindua ikusi zuen, «besteek ere gogor jo dutelako, baina nik erritmoari eutsi diot». Bi urtean laugarren txapela da Erasunentzat



ARGAZKIA: AITOR A.

Gazte mailako marka berria ezarri zuen Erasunek, 2005ean Ugaitz Mugertzak egindakoa hobetuz.

	45	45	54	54	45	45
1. A.ERASUN	1'01"	2'09"	4'44"	7'25"	8'59"	10'37"
2. J.KAÑAMARES	49"	2'16"	4'39"	7'51"	9'32"	11'18"
3. R.SARALEGI	1'02"	2'19"	5'03"	8'23"	10'13"	11'59"
4. A.OLANO	55"	2'02"	4'40"	7'54"	9'52"	12'03"
5. J.ALKIZALETE	1'06"	2'42"	5'21"	8'54"	12'02"	13'28"
6. J.ARANBARRI						16'41"

eta urteko hirugarrena (Nafarroako 3. mailakoa ere irabazi zuen) eta gustura dago egindako lanarekin: «Urtea ezin

hobe doaie, gustura nago». Orain, abenduan Binakako Urrezko Aizkora txapelketan arituko da Aurtizkoa.

Portu eta Txoperena Nafarroako bigarren mailako arpanlarien txapeldun

A.A. Nafarroako bigarren mailako arpanlari txapelketan Igantziko Julen Txoperena eta Lesakako Iñaki Portu alde batetik, eta bertetik, Berriozarko Asier Urbistondo eta Mikel Huarte aritu ziren. 45 ontzako etzandako enborrari hamar ebaketa eman behar zizkieten eta zutik zegoen enborrari lau.

Etzandako lehen korteetan aitzinetik ibili zen Berriozarko bikotea, baina zutikako enborretan buelta eman zioten Txoperena eta Portuk. Azkenean 5:44 behar izan zituzten lana akautzeko eta Urbistondo eta Huartek 7:15".



ARGAZKIA: A.A.

Iñaki Portu lesakarra eta Julen Txoperena igantziarra lanean.



Xabier IBARGARAI Erratzuko palista

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Heldu den urtean profesionaletan debuta egingen dut eta ilusioz nago»

Aitor AROTZENA

Urte emankorra izan da aurten goa Xabier Ibarra palista erratzuarentzat eta abudo, pala profesionalera saltoa egingen du. «Urte akabailan edo heldu den urte hasieran hasiko naiz, bai. Palan ez da berriz pilota modalitate batzutan haina diru mugitzen, baina Bizkaiko Diputazioak hartu du eta badirudi lau urterako etorkizuna segurtatua dagoela. Halere, badakigu palatik ez dela bizitzen ahal, lana behar duzu aparte, baina ilusioz nago». Lehendik ere, afizionatua izanik, profesionalekin batera lehiaketa bat irabazia da palista erratzuarra eta esperientzia «arrunt polita» iruditu zitzaion. «Fusto argentinarrekin batera, Urkia-Galan profesionalei irabazi genien finala, ustekabea emanez. Profesional hitza aditzen duzunean, ematen du zu baino gehiago direla, baina motibazio gehiagorekin jokatzen duzunez, gogo horiekin ez da hainbertzeko diferentzia ezagutzen». Xa-

«Telebistan gutti agertzen dira pala partidak eta ikusteko zaila ere bada jendearendako. Hiru-lau pilotakada ematen badira, tantu luzea da».

bi Ibarra gibelesko koadroetan aritzen da eta «bi esku onak ditut, ezkerre baina eskuinarekin ere berdina ematen diot, eta hori abantaila da. Kolpean potentzia handia dut eta horrekin min aunitz egiten diet kontrarioeri. Buru aldetik hobetu behar dut, galtzen hasten naizenean hondoa jotzen dudalako. Beharbada gaztea naiz eta esperientzia hori falta zait».

PALAREN BITARTEZ, BERTZE HERRIALDEAK EZAGUTU

Palak hainbertze herrialde eza-gutzeko aukera eman dio Ibarrairi. Berriki, Reunion Irletan lehiaketa bat jokatu du eta hiru aldiz Kuban

• Xabier Ibarra Erratzuko palistak Nafarroako buruz buruko txapela jantzi du, lehen aldiz larruzko pilotarekin. Hiru final jokatu ditu Txikiren kontra eta aurten irabaztea lortu du.

• Oberena taldeko pilotaria, pala motzean ere binaka Nafarroako txapeldun eta Espainiako klub arteko txapeldun izan da Zozaia lesakarrarekin batera.

• Halere, beretzat txapelik handiena, profesionalekin nahasita jokatutako Nazioarteko Irekikoa izan da. Fusto argentinarrekin batera irabazi zuen.

izana da. «Arras esperientzia polita izaten da, bertako jendearen kontra ari behar da eta ikusten da pilota ez dela bakarrik hemengo kontua, han ere badirela maila handiko palistak. Gainera, leku zoragarriak dira eta bisitatzeko ederrak».

Beharbada pala izanen da pilota modalitateen artean ezezagunena jendearentzat. «Telebistan gutien agertzen dena da eta ikusteko zailena ere bada jendearendako. Deportibon jokatzea zaila da, peloteo guti izaten da eta hiru-lau pilotakada segidan ematen badira tantu luzea da. Ahal duguna egiten dugu, baina horrela da». Pala motza, luzea, paleta, larruzko pilotarekin, gomazkoarekin... Palaren barrenean hainbertze modalitate izateak ere jendea nahasi dezake beharbada. «Gual bai, pala motzean eta paletan pilotu luzeagoak ikusten dira, baina pala luzearekin ez, eta jendea ez zaio hori gustatzen. Eta profesionaletan pala luzearekin jokatzen da!».

TXIRRINDULARITZA

Eskualdeko txirrindulariek emaitza onekin amaitu dute denboraldia

Mikel Nieve leitzarra aurtengo estatu espainiarreko amateurrik onena

ttipi-ttapa

Aunitz dira gaur egun lasterketetan parte hartzen duten eskualdeko txirrindulariak. Denak biltzea zaila da baina horietatik batzuk bildu ditugu. Gehienek ere denboraldi ona egin dute. Halere, aipatu, **Jon Oskaritzek** ezin izan duela bere maila eman, denboraldi hasieran klabikula hausteak arazo franko ekarri baitizkio arizkundarrari.

Jose Luis Agesta jubena txukun ibili da eta emaitzek hala erakusten dute. Orain Bi-Lux taldean ari da, baina baliteke hurrengo urtean Seguros Bilbaora joatea. Lehen postuak lortu zituen Bilatortan, Errenterian, Zangotzan eta Arroitzan. Azken honetan, bigarren urtez jarraian Nafarroako txapelkun izan zen. Horrez gain, bigarren sailkatu zen Arreko txapelketan, eta laugarren Altsasan eta Beran. Castellonen jokotutako lasterketa nazionalan, 25. izan zen almandoztarra.

Garikoitz Atxa afizionatuetan ari da, Lizarte taldean. Almandoztarrak berandu ekin zion denboraldiari eskumuturra hautsi zuelako, baina laster etorri ziren garaipenak: Haro (Errioxa) eta Audioko lasterketetan lehena izan zen; Arroitzan bigarren sailkatu zen eta horrenbortze, elite mailako Nafarroako txapelkun izan zen bigarren;



ARTXIBOA

Joseba Larralde Bidelan taldean ari da eta emaitza onak eskuratu ditu denboraldi honetan.

Uharteko saioan hirugarren izan zen eta bosgarren Llagostiko Itzuliko (Katalunia) etapa batean. Murtzian jokotutako nazio mailako lasterketan 65. sailkatu zen.

Francisco Meoki Scania-Conauton ari den beterrano elizondarra ere ederki moldatu da: lehena izan zen Astudilloko (Palentzia) eta Erriberako Itzuliko etapetan, baita Olite eta Moros Calatayudeko (Zaragoza) lasterketetan ere, beterranoak-40-en mailan; bigarren postua Iruñan eskuratu zuen, eta bere mailan eta mendian lehenbizikoa izan zen; Gasteizen eta Nafarroako Kopako finalean bigarren gelditu zen, eta 23. Jaengo txapelketa nazionalan.

Ebakuntza bat tarteko, **Iñaki Villoria** Scania-Conautoko almandoztarrak ere berandu

hasi zuen denboraldia, baina lan fina egin du: lehena izan zen Fromistan (Palentzia) eta tarteko helmugetan; bigarren Apatamonasterioko (Bizkaia) lasterketan, eta Master 30ean lehena eta Euskadiko txapelkun; hirugarren sailkatu zen Moros Calatayuden (Zaragoza) eta tarteko helmugetan; laugarrena izan zen Iruñan bigarren Master 30ean; Eguesen hirugarrena izan zen Master 30ean; Nafarroako Kopako finalean Master-30 lasterketan ere hirugarren gelditu zen eta 30. Jaenen.

Bidelan-Kirolgi taldeko **Joseba Larralde** beratarrek saio ona egin du denboraldi honetan. Bigarren sailkatu zen 23 urtez azpikoetan Arroitzan, eta hirugarren Ledesman eta Arroitzan. Bosgarren izan zen Berriatuan eta seigarren

Tudela de Dueroko (Valladolid) etapa batean eta Campaspero eta Lazkako lasterketetan. Ayeguin eta Villatortan (Katalunia) zazpigarren izan zen. Bidasoako Itzulian ere lan bikaina egin zuen eta sailkapenean 17. lekuan bukatu zuen. Ororbian, Laukizen eta Duranan 10. postua lortu zuen eta Camargon eta Muxikan 12.a; Salamankako txapelketa batean 13. gelditu zen eta 15. Fiteron eta Lemoién. Gijueloko (Salamanka) etapa batean 17. izan zen eta Mutilba Beheko txapelketa 18.; Mojadoseko Itzuliko (Valladolid) lehen etapetan 22. izan zen eta Salamankako Itzulian, hiru etapetan 27., 31. eta 63. sailkatu zen.

Mikel Nieve leitzarri buruz zer erranik ez. Orbea taldean ariko denak, denboraldi bikaina

FLASH

Baztan Futbol Taldean egindako lana sarituz bi zilarrezko domin banatu dituzte

Baztan Futbol taldean 25 urtez egindako lana sarituz, Kirol Merituari emandako Zilarrezko Dominak jaso zituzten azaroaren 20an, Felix Gonzalez Uriarte eta Lander Santamaria Alcocer elizondarrek. Felix Gonzalezen kasuan, Nafarroako Futbol Federazioan egindako lana ere eskertu zen. Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidentek banatu zituen zilarrezko dominak eta bi baztandarrekin batera, Nafarroa osoko bertze hainbat lagun saritu zituzten, Nafarroako Jauregiko Tronuaren Saloian egindako ekitaldian.

egin du eta estatu espainiarreko amateurrik onena izendatua izan da.

Guttiro dira neska baina badira etorkizuna izan dezaketenak ere. **Judit Saizar** Aralar Txirrindulari Taldeko leitzarri infantil mailan ari da eta lan txukuna egin du: lehena izan zen Nafarroako eskolarteko txapelketan, nesken kategorian. Euskadiko eskolarteko txapelketan ere lehena izan zen eta Nafarroako selekzioarekin Espainiako Txapelketan zazpigarren.

Andoitz Azurmendi leitzarri Burunda Txirrindulari Taldean ari da, kadeteetan. Denboraldi honetan lau lehen postu eskuratu ditu —hiru mendian— eta lau bigarren postu —bi mendian—. Horrez gain, Valladoliden, Espainiako Txapelketan 14. gelditu zen.

AGENDA

egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ERAKUSKETAK

URDAZUBI

Azaroaren 17tik urtarrilaren 6ra, Roger Bravard margolariarekin erakusketa: *63 urtetako pintura, 1944tik 2007ra*. Asteazkenetik igandera Klaustroan, 14:00etatik 18:00etara.

IPUIN KONTALARIAK

BERA

Azaroaren 30ean, Isabel Millet haurrentzako ipuin kontalaria, 18:00etan Liburutegian.

MULTIMEDIA

BERA

Azaroaren 30ean, Ikuskizun Multimedia: Mokaua. 22:00etan Kultur Etxean. Sarrera 8 euro.

KULTUR EGUNAK

IGANTZI

Abenduaren 6tik 8ra, Iturengo Kultur Eguna. Xehetasun gehiago 13. orrialdean.

ITUREN

Azaroaren 30etik abenduaren 2ra, Iturengo Kultur Eguna. Xehetasun gehiago 15. orrialdean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Azaroaren 30ean, Ruper Ordorikaren kontzertua, Arizkunenean. 20:00etan. Sarrera 5 euro.
Abenduaren 1ean, Joselu Anaiak taldearen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30etik aitzinera. Sarrera 8 euro.
Abenduaren 15ean, Ken Zazpi taldearen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30etik aitzinera. Sarrera: 12 euro aitzinetik; 15 euro takilan.

TELEBISTAKO TXOKOA



Igantzi eta Iturengo Kultur Eguna ekitaldiz beteak

INFORMAZIOA TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Lesaka eta Goizuetako feriekin bukatu da udazkeneko feria eta azoka denboraldia, baina Eguberriak baino lehen izanen da gure herrietan kulturarekin lotutako ekitaldirik. Igantziko Euskara Batzordeak antolatuta, abenduaren 6tik 8ra kultur egunak egingen da. Duela lau urteko bidetik, baina berrikuntzekin, *Igantziarrak eta kirola* gaiaren inguruko erakusketa izanen da. Horrez gain, Kulki taldearen eskutik, herri kirolean oinarritutako tailerretan aritzeko aukera izanen dute tiikienek. Aktore ezagunen eskutik *Bota patsa!* izeneko emankizuna ikusgai izanen da. Patata-tortila lehiaketa,

jazz emanaldia, haurrentzako filmak... Adin guztietako jendearentzako ekitaldiak.

ITURENGO KULTUR EGUNAK HILAREN 30ETIK ABENDUAREN 2RA Horrez gain, Iturengo Ibintza Kultur Taldeak antolatuta, kultur egunak izanen dira Iturenen ere. Ortziral arratsaldean talo jatea eta kantaldia izanen dira. Larunbatean, batez ere haurrei zuzendutako ekitaldiak izanen dira, baina bertso afaria ere izanen da Irazu eta Amurizarekin. Igandean, berri, herriko argazkien erakusketa. Horiek eta bertze hainbat kontu **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN** ikusgai.

DISKAK



The Pub Ibiltaria XI

OSKORRI

ELKAR, 2006

Duela 11 urte, Oskorri taldeak *The Pub Ibiltaria* izeneko abentura paratu zuen abian, edozein instrumentu jo eta kantatu egiten duen publiko den jendea protagonista bilkatuz. The Pub Ibiltaria kolekzioa 13 alekoa izanen da, eta oraingo hau. Azken lan hau 2006ko abenduaren 21ean erregistratu zen, Bilboko Pio Baroja plazan. Euskal Herrian sortutako 17 abestiz osatutako bilduma da eta gehienak ere aspaldiko kantuak dira: *Edari Maitagarria, Andregaia, Bizi naiz munduan, Aldrebeskeriak, Orain hasten naiz kantatzen, 1813ko Donostiaren erreketak, Alarguna, Alferraren astea, Urzapal bat, Ai, aberatsa banintz, Karta Duesoatik, Polita zeradela, Izar ederra, Biba Errepublikak, Sakamantekasen berriak, Maitatua sobera (Ama) eta Akerra ikusi degu.*

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (azaroaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 20,00 € (+2,00)

Zerri gizena
0,863 € kilo. (=)

Zerramak:
0,270€ Kg/bizirik. (-0,010)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (+0,03)

1.koa 3,79 (+0,03)

2.koa 3,26 (+0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,22 (+0,03)

1.koa 3,91 (+0,03)

2.koa 3,36 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tiikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 140,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)

idixkoak 145,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,08/3,18

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,90/8,30

8-10 kilokoak: 6,10 /6,30


JAKIN BEHARREKOAK

Abenduaren 10etik 13ra banatuko dira birziklatzeko poltsak Bortzirietan

Etxean jasotako gutunarekin joan beharko da poltsaren bila

Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen ekimenez, Bortzirietan etxeko zaborraren birziklatze-kopurua hobetzeko poltsak banatuko dira. Ikerketa soziologiko berrien eta Bortzirietan egin diren kanpainetatik ateratako ondorioen arabera, jendeak ez ditu etxean sortzen zaizkion zaborraren zati desberdinak bereizten ez duelako horretarako edukiontzi egokirik. Hain zuzen, arazo horri aitzin egiteko asmoz dator poltsa berritzaile hau. Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean Bortzirietako herritarren artean banatuko du las-ter.

Argazkian ageri den bezala, urdin, berde eta hori koloreko hiru poltsa ditu, papera edo kartoia, beira eta enbaseak ba-



NON	NOIZ
Bera	abenduaren 10ean (9:00-11:00)
Bera	abenduaren 13an (11:30-13:30)
Lesaka	abenduaren 10ean (11:30-13:30)
Lesaka	abenduaren 13an (9:00-11:00)
Etxalar	abenduaren 12an (goizez)
Igantzi	zehaztu gabe (9:00-11:00)
Igantzi	zehaztu gabe (11:30-13:30)
Arantza	zehaztu gabe (9:00-11:00)
Arantza	zehaztu gabe (11:30-13:00)

koitza dagokion lekuan sartu dezan. Poltsak garbitu egin daitezke eta horrenbertez, luzaroan erabil-

tzeko prestatuak daude. Erabiltzeko ez du inongo konplikaziorik.

Goiko taulan herri bakoitzean zein or-

dukan jaso behar den ageri da. Beran Eztegarra frontoira joan beharko da edukiontzia jasotzera; Lesakan Herriko Etxeko arkupeira; Etxalarren Mankomunitateko bulegora; Igantzin frontoira eta Arantzan Herriko Etxeko gorapeira. Mankomunitateak etxeetara bidalitako gutunean xehetasun horiek guztiak azaltzen dira, baita poltsa jasotzera gutunaren goiko aldearekin joan behar dela zehaztu ere. Dena den, aipatu, Arantzan eta Igantzin oraindik ez dela zehaztu zein egunetan egingen den banaketa, baina Mankomunitateak ahalik eta abudoen egingen dutela adierazi dute.

Kanpaina dagoneko abiatua da. Ttipi-ttapa telebistan eta Xorroxin irratian publikizitate kanpainak emititzen ari dira.

LIBURUAK



Dakiguna ikasten

Patziku PERURENA

ALBERDANIA, 2007

Mendi buelta bat, artxiboetara joan-etorri bat, libururen batean aurkitutako datu bat edo oroitzapenaren zokoren bate-tik sortutako hitz ahantzia, horietako edozein zertzelada izan daiteke liburu honetako pieza bakoitzaren ernamuina. Hizkuntza du abiapuntu, hizkuntza bizia, garai batekoa edo oraingoa; estilo pertsonala erabiltzen du, berea eta identifikatzen erraza, baina iradokizunez bete. Hizkuntzaren barruan ari da, senaren argi-mutila har-

tuta, mugarri bila, dakiguna ikasten, edo genekiena, behintzat. «Ez gara ohartzen, baina, horretan dugu atseginik handiena. Ikasmin handia izanda ere, aurrez dakiguna besterik ez baitugu ikasten. Gure bihotzak bere eskema zahar- rren arabera antolatzen baititu material berri guztiak, lehenagotik dakienera egokitzen ez den guzia aintzat hartu ga-be». Maitasuna, gorrotoa, hizkuntza, literatura, euskal usadua, filosofia... ditu hizpide.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Abenduaren 7an, Ani: Aceritora mendi-ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

BAZTAN

Abenduaren 2an, Adartzara ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak mendi taldeak.

Abenduaren 9an, Oteixonera ateraldia Baztango Mendigoizaleen eskutik.

Abenduaren 16an, Hirubelakaskora ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak-ek.

BERTSOAK

ERRATZU

Abenduaren 8an, bertso afaria, *Errimak zizurketuz... ideiak laxatuz.* Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Erika Lagoma, Jon Barberena eta Xabier Silbeira. 21:00etan Elkartearen. Gai jartzailea: Fernando Anbustegi.

BERA

Abenduaren 2an, bertso saioa. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Fredi Paia, Miren Artetxe eta Joxe Juan Zubieta Etxabe. Gai jartzailea: Julen Zelaieta. 19:00etan Kultur Etxean.

GOIZUETA

Azaroaren 30ean, Xalto Sariak. 20:00etan kanporaketa Ganbaran; 21:30ean afaria Umore Ona Elkartearen eta ondotik finala. Xehetasunak 47. orrialdean.

FERIA

ELIZONDO

Abenduaren 8an, Baztan-Bidasoako artisauen feria. Goizetik eguerdira bitarte, Elizondoko Foruen Plazan.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituko
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuko eta promozio berriko pisuak eta apartamentuak salgai.
ERRATZU-AZPILKUETA.
- Etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
BERA.
- 2. eskuko pisuak salgai.
- Ostatuak salgai.
- Lur eremuak salgai.
LESKA.
- Pisuak eta lur eremuak salgai.
DONEZTEBE.
- 2. eskuko pisuak salgai.
- Promozio berriko 2 duplex salgai.
NARBARTE.
- 2. eskuko pisuak salgai.
SUNBILLA.
- Familia bakarreko etxeak eta adosatutako salgai.
DONEZTEBE INGURUAN.
- Baserriak, etxeak, bordak, pisuak eta lur eremu eraikigarriak salgai.
ELIZONDO INGURUAN.
- Familia bakarrekoak eta lur eremuak salgai.
BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta lur eremuak salgai.

PROMOZIO BERRIAK.
GARTZAIN: 135 m²ko familia bakarreko bi etxebizitza, 600 m²ko partzelarekin.
ORONÓZ-MUGAIRI: Bi familiako 8 etxebizitza, 178m² erabilgarri bi solairutan banatuak.
AGOITZ: bi familiako 20 etxebizitza, 201 m² eraikiak eta 170 m²ko lorategiarekin.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurraekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permuterako prest. ☎678 526091.



DONEZTEBE. 95m²ko pisua salgai. Trastelekua, igogailua eta garaje-lokal komertziala. ☎660317356/649703186.

LESKA. Bittiria kalean pisu berria salgai.

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatutako bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

☎659075659.

LESKA. 110m²ko etxebizitza salgai, Bittiria kalean. Bista onak. ☎670319380/607769519.

BEASAIN. Etxebizitza bateko beheko solairua salgai. Ilepaindegia, biltegia, tailerra eta abar jartzeko egokia. 9.500.000 pezeta (57.000euro). ☎686062963.

BERA. Legia karrikan 92m²ko pisua salgai. ☎948 630821/ 661115332.

LESKA. Bittirian 90m²ko pisu moblezatua salgai. Sartzeko prest. ☎943 667955.

LESKA. Bittiria 67, 1.ezkerrean dagoen pisua salgai. 3logela, bainugela, sukaldia, egongela eta balkoia. 219.000euro. ☎618074643.

IRUN. 87m²ko pisua salgai, 3 logela, 2 bainugela, trastelekua eta garajea. Moblezatua. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. ☎629 032752.

LEITZA. Baserria salgai, 8.000m²ko lur eremuarekin. ☎647 816739.

ETXEBIZITZAK 109 Errentan eman



Baztango

promoción inmobiliaria

SALHENTA:

BERA: Familia bakarreko 3 solairuko etxea, 675 m²ko lur eremuarekin.
BERA: 3 solairuko etxea, 1.655 m²ko lur eremuarekin.
BERA: 121 m²ko pisu berria, igogailuarekin.
BERA: 89 m²ko pisu berria, igogailuarekin.
BERA: 73m²ko pisu, 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela.
BERA: Etxebizitza izateko balio duen 75m²ko lekala, argitsua.
BERA: Erdigunean: 73m² erabilgarriko pisua. 163.000 euro.
BERA: 121 m² eta 89 m²ko pisu berriak herrigunean. Igogailuarekin. Sukalde hornitua.
DONEZTEBE: 100 m²ko pisu berria, 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia eta trastelekua.
DONEZTEBE: Erdigunean: 72 m²ko pisua eta bajera.
IRURITA: Familia bakarreko etxebizitza lur eremuarekin.
IRURITA: 2 eta 3 logelako pisuak, igogailua, trastelekua eta apartakeluarekin.

LUR EREMUAK:

ETXALAR: 8.750 m², ura, argia, bidea, familia bakarreko etxebizitzarako.
BERA, SUNBILLA eta **GAZTELUN** herrigunean.
DONAMARIA, ELIZONDO eta **ERRATZUN.** Guztiak eraikitzeke.

**PISUA ERRENTAN EMAN NAHI BADUZU
ETA KOBRATUKO DUZULA ZIURTATU, DEITU.**

Kattonberri karrrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

andueza

NARBARTE:

- 85m²ko pisua, 20m²ko garajea, 100m²ko baratzearekin.
30.500.000 Pzta.

- Lur eremu eraikigarria 3.000m². Toki ezin hobea 25.000.000 Pzta

LEGASA:

- 94m²ko pisua, 45m²ko terraza, 57m²ko baratzearekin.

DONEZTEBE:

- Hiri erdian, 107m²ko pisu berria salgai.
42.000.000 Pzta.

ORONÓZ:

- Etxebizitza batean bi pisu berri salgai.

- Estrenatzeko dagoen 115m² etxebizitza bateko beheko solairua salgai. Lorategiarekin 200.000€

ELIZONDO:

- 130m²ko 3 toilet salgai. Solairu bakarrekoak, eskalatorik gabekoak. Oso osoak. 400m²ko lur eremuarekin.

BASERRIAK ERE SALGAI

T. 948 23 88 16

M. 620 20 87 87

www.habitat24.com/andueza

LESKA. Pisu moblezatua errentan emateko. ☎943 643378.

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LESKA. 20m²ko garajea salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

LANA 301 Eskariak

ETXALAR. Autonomo, PY-ME edo partikularrentat administrazio eta fiskalitate arloko lanak egiten ditut. ☎662 011142.

ARANTZA. Emakume gazte euskaldun batek lan egiten luke. Lehen betetako lanpostuak: biltegi laguntzailea, bezeroarentzako arreta eta ofizial administraria. ☎663695410.

BERA. Pertsona batek lardinen lan egiten luke, edo igeltsero peoi lanean edo pintura ofizial lanean. ☎627056696.

BERA. Pertsona batek portalak edo pisuak orduka garbitzen lan egiten luke, edo sukaldari laguntzaile bezala. ☎627056696.

Gizona edozein lanetarako. Zurgineta nekazari lanetan aritua. ☎628814559.

BORDA
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

43101er-57-8 (E35AKA)
berawin@terra.es
Tfnoa./Fax: 948 637 546
Mug.: 609 477 277

Emakumea edozein lanetan ariko litzateke. ☎628 814559.

LANA 302 Eskaintzak

Industrialde bateko jate-txean astez menuak egiteko sukaldaria behar da. Asteburu eta besta egunetan ez du lanik eginen. ☎948 351822.

SUNBILLA. Kanpinean langilea behar da. ☎948 450540.

BERA. Saltzailea behar da Renault tailerrean lan egiteko. Gidatzeko baimenarekin. ☎948 630621.

BETELU. Haur eskolan ordezkapenak egiteko lan poltsa osatzen ari dira. Eskatzen da: EGA, magisteritza hau hezkuntzan, haur-erentzako goi zikloko tekniaritza eta gida baime-na. ☎948513001 (Josune).

DONEZTEBE. Malerrekako Jubilatuen Elkartearen ostataua martxan paratu nahi da. Errenta ez da kobratuko baina interesatuek bere gain hartu beharko dituzte gastuak. Kokaleku ona, Santa Luzia karrikan. ☎676 636391/948450387 (eguerditan eta 21:30etik aitzinera)

GORRITI. Jatetxe batean lan egiteko neska bat behar da. ☎948 504061.

ALKAIAGA. Etxea garbi-

tzeko norbait behar da. Aste-antseiordu. ☎943632484.

OITZ. Posadan igande eta jai egunetan lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎948 451951.

MOTORRA 501 Salerosketak

Ibiza 1.9 autoa salgai, 1998koa, egoera onean. Direktzio lagundua, E.E. ☎696794345.

Bultaco Sherpa 350 motorra bertze moto tiki bategatik aldatuko nuke. Egoera onean. ☎678853913.

Mercedes ML 320 gasolinazko autoa salgai. 1998koa. Hagitz egoera onean. 15.000 euro. ☎629985060.

Gas-gas EC200 motorra salgai, 2006koa, 6 hilabeterekin gutti erabilia. ☎689042282.

Gas-gas 125 Enducroseko motorra salgai, egoera onean, gutti erabilia, 2004. urtekoa. 2.700 euro negoziagarriak. ☎627457886.

Pasquali markako **traktorea** (14CV) eta **Algha segadora** salgai. ☎948 504498.

Nissan Primastar **furgoneta** salgai, urdin metalizatua eta 9 plazakoa, 2 urte eta 50.000 km. 3 urteko garantia. ☎618883117.

Ongarria hedatzeko **remolke**a salgai. ☎948452110 (gazez).

Isuzu Trooper **todoterreno**a salgai. 140.000 kilometro. ☎690 848542.

Golf 1.9 TDI autoa salgai, 1998koa, NA-AV. Egoera onean. ☎649934844.

125 ccko **crosseko motorra** salgai. Egoera onean eta merke. 2001ekoa. ☎680781571 (arratsaldez).

Opel Astra autoa salgai,

diesela eta egoera onean. ☎948 581044.

Peugeot 205 diesela salgai, C.C., E.E., aire egokietua, direktzio lagundua. Betei garajejan egondakoa. ☎660184729.

MOTORRA 502 Tailerrak

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

**AUTO IA BERRIETAN
ESKAITZA ZABALA
(6-12 hilabete koak)**
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGAREN ESKUKOAK
Renault 19 Chamade, Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Laguna Grand Tour Privilege 2.2 DCI, Citroen Saxo 1.9 D, Opel Corsa, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus DCI, Peugeot 406 1.9 90 CV.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Mitsubishi Intense 3 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Terrano II 3 ate, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoak, Galloper Super Exceed 3 ate, Montero IO 5 ate, Ibiza, Seat Inca, Almera, Fiat Doblo, Nissan Navarra, Frontera 3-5 ate eta Suzuki Jimmy.
SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

ANIMALIAK 602 Salerosketak

West Highland White Terrier arrazako **2 zakurkume** ar zuri salgai. Hilabete eta erdi. ☎609083342.

ARANTZA. 300 kilo inguruko zerrama salgai. ☎948 634093.

Bi urteko **ahari mutur gorria** salgai, adarrik gabea. ☎609877177.

DENETARIK 702 Salerosketa

Gas kaldera itxia salgai. ☎620254203 (goizez).

Bigarren eskuko Zero Sette **trikitixa** profesionala salgai. 1.200 euro. ☎948 599229.

Servicios Berawin

Aseguru aholkulariak - Zerbitzuak
Informazio Inmobiliaria
Foro Plaza, 6
31780 Bera

Tfnoa.: 948 630 601
Fax.: 948 630 805

berawin@terra.es

MERKATU TTIKIA

zure iragarkia 3 tokitan
Aldizkaria
+
Telebista
+
Internet

8€

ttipi-ttapa • 948 635 458 • www.ttipi.net

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK

sarrailagintza
zerbitzu
berria



Santiago 31 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 234
Faxa: 948 581 210

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



XUBAN eta UXURI ETXEGIA sunbildarrek azaroaren 30 eta abenduaren 1ean 9 eta 7 urte beteko dituzte. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Ongi pasa eguna.



Zubietako **LUIAK** abenduaren 14an 3 urte beteko ditu. Muxu haundi bat Zubietako izebasaba, ataubi-amatxi eta bereziki ama eta aitaren partetik.



Igantzikoko **ANTOR TXOPERENA** Euzkiko 8 urte beteko ditu abenduaren 10ean. Zorionak eta muxu aunitz familiarren partetik.



Zorionak **PESKAS!** Egun ona pasatzea eta gurekin ospatzea espero dugu, sorpresaren bat izanen da eta. Muxu aunitz Tturko eta Eroskiko lankideen partetik.




BEÑAT ETXABIDE OLAZABAL lesakarrak 2 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak eta muxu pila bat Behoko Errotako atona, amatxi, izeba eta osaben partetik.



Salamankako Topas espetxean preso daukaten **JOXEMIEL GAZTELUK** azaroaren 25ean 56 urte bete zituen. Aunitz urtez eta besarkada haundi bat etxeko eta lagunaren partetik. Euskal preso eta iheslariak etxera!



Iruñeko **IÑAKI ALTZUGUREN LARRAZAK** 8 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak eta muxu haundi bat familiarren, eta bereziki Maialen eta Leirenen partetik.



Zorionak **SORGINTXO** abenduaren 14an 3 urte beteko dituzte. Muxu haundi bat Aurtizko familiarren partetik. Prestatu txokolata eta pastel goxoak.



MARITXU SANCHEZ zubieta-rrak 9 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak prexioxa eta disfrutatu bizitzan. Muxu haundi bat. Iñaki eta Ines.



OLAIA YANCI ETXARTE lesakarrak 5 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak prexioxa familiarren partetik, bereziki atxa, ama eta Beñat.



MIREN eta ARKAITZEK laster urteak beteko dituzte. Zorionak eta ongi pasa eguna. A! Oroitu pastel goxoak ekartzeaz!



PATXI LOIARTE PETRIKORENA igantziarrak azaroaren 27an 5 urte bete ditu. Zorionak etxe-koen partetik.



JANIRE TELLETXEA IRATZOKI etxalartarrak abenduaren 14an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat gure printzesari.



MIRIAM eta MIRENEK abenduan urteak beteko dituzte. Zuen afariaren zain gelditzen gara. Miriamek pizza goxoa eta Mirenek Arkupeko pastak. Muxu haundi bat zuen lagunaren partetik.

Gure ardura: **INGURUMENA**

Gure helburua: **AURRERAPEN IRAUNKORRA**

Gure Indarra: **ZEHAZTASUN PROFESIONALA**

Guztion aurrerapen eta ongizatean lagundu nahi dugu.

MAGNA balioa ematen dio naturak eman digun mineral bati eta **BAZTANI** aberastasuna ekarriko dio.

MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.



Magnesita de Artesiaga
RIQUEZA | MEDIOAMBIENTE | FUTURO

NAFARROAREN EGUNA

ABENDUAREN

3^A



XXV ANIVERSARI
AMEJORAMIENT
DEL FIJER
1982-2007



Jauregia ezagutzeko bisita gidatuak



Baluarten kontzertua



Jaialdi Gaztea



Haurrendako jaialdia



San Frantzisko Xabierkoari eskeintza



Ekitaldi instituzionalak



Lunnis taldearen ekitaldiak



Musika koru eta bandak

¡GOZA EZAZU!



Nafarroako
Gobernua

Lur

abenduak 1 larunbata

JOSELY ANAYAK

00:30 8€

abenduak 5 asteazkena

LUR D JOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

abenduak 8 larunbata

Jägermeister

BESTA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

DISKA BERRIAREN
AURKEZPENA

abenduak 15 larunbata

kenzazpi

00:30 12€ aurretik 15€ takillan

abenduak 22 larunbata

MUNTAI BERRIA

JOXEINA ETXEBERRIA

01:00 8€

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Laguntzaileak:

Heineken

Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK